



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

2008ko Bizkaiko boluntariorizari buruzko azterlana





SARRERA	7
I. KAPITULUA EGUNGO BOLUNTARIOAK	13
1.1. Egungo boluntarioen profila	15
1.2. Lehenengo harremana boluntariotzarekin	17
1.2.1. Hasteko adina	17
1.2.2. Arrazoiak	18
1.2.3. Zelan ezagutu zuten borondatezko lanean ari diren erakundea	18
1.2.4. Erakundea aukeratzeko faktoreak	19
1.3. Lehenespenezko intereseko esparruak eta taldeak	19
1.3.1. Esku hartzeko gizarte esparrua	19
1.3.2. Esparru geografikoa	21
1.3.3. Intereseko taldeak	21
1.4. Konpromiso maila, arduraldia, egonkortasuna eta inplikazioa	22
1.4.1. Konpromisoa	22
1.4.1.1. Ohizkotik aldizkakora	22
1.4.1.2. Aldizkakotasuna	22
1.4.2. Lehenetsitako arduraldi egunak boluntarioen jarduerarako	22
1.4.3. Egonkortasuna	22
1.4.3.1. Borondatezko lanei eskainitako denbora	22
1.4.3.2. Borondatezko lanei eskainitako orduak astero	23
1.4.3.3. Inplikazio mailaren bilakaera	23
1.4.4. Inplikazioa erakundearen lanetan	24
1.5. Esperientziaren balorazioa	25
II. KAPITULUA GALDUTAKO BOLUNTARIOAK	27
2.1. Galdutako boluntarioen profila	29
2.1.1. Erakundea uzteko arrazoiak	30
2.1.2. Ondorengo harremana erakundearekin	30
2.2. Lehenengo harremana boluntariotzarekin	31
2.2.1. Hasteko adina	31
2.2.2. Boluntario egiteko arrazoiak	31



2.2.3. Zelan ezagutu zuten borondatezko lanean ari ziren erakundea . . .	32
2.2.4. Erakundea aukeratzeko faktore erabakigarriak.	32
2.3. Lehenespenezko intereseko esparruak eta taldeak	32
2.3.1. Esku hartzeko gizarte esparrua.	32
2.3.2. Esparru geografikoa	33
2.3.3. Intereseko taldeak.	33
2.4. Konpromiso maila, arduraldia, egonkortasuna eta inplikazioa . . .	34
2.4.1. Konpromisoa	34
2.4.1.1. Ohizkotik aldizkakora	34
2.4.1.2. Aldizkakotasuna	34
2.4.2. Lehenetsitako arduraldi egunak boluntarioen jarduerarako	34
2.4.3. Egonkortasuna	34
2.4.3.1. Borondatezko lanei eskainitako denbora	34
2.4.3.2. Borondatezko lanei eskainitako orduak	35
2.4.4. Inplikazioa erakundearen lanetan	35
2.5. Esperientziaren balorazioa	36
III. KAPITULUA IZAN DAITEZKEEN BOLUNTARIOAK	37
3.1. Izan daitezkeen boluntarioen profila	39
3.1.1. Boluntariotzan jarduteko interesa.	40
3.1.2. Boluntariotzan jarduteko aukera	41
3.2. Lehenengo harremana boluntariotzarekin	41
3.2.1. Boluntariotzan ez jarduteko arrazoiak	41
3.2.2. Boluntariotzan jarduteko bultzagarriak	42
3.2.3. Erakundea aukeratzeko faktore erabakigarriak	44
3.3. Interesekoak izan daitezkeen esparruak eta taldeak	44
3.3.1. Intereseko gizarte esparrua	44
3.3.2. Esparru geografikoa	44
3.3.3. Intereseko taldeak.	45
3.4. Etorkizuneko arduraldia, egonkortasuna eta inplikazioa	45
3.4.1. Konpromisoa	45
3.4.2. Lehenetsitako arduraldi egunak boluntarioen jarduerarako	45
3.4.3. Egonkortasuna: borondatezko lanei eskainitako orduak	46
3.4.4. Inplikazioa erakundearen lanetan	46
IV. KAPITULUA GALDUTAKO EGUNGO ETA IZAN DAITEZKEEN BOLUNTARIOEN ARTEKO KONPARAZIOA	49
4.1. Arrazoiak	51
4.2. Erakundea aukeratzeko faktoreak	52



4.3. Esku hartzeko esparruak eta taldeak	52
4.3.1. Gizarte esparruak	52
4.3.2. Esparru geografikoak.	53
4.3.3. Taldeak	54
4.4. Konpromisoa	54
4.4.1. Konpromisoa	54
4.4.2. Lehenetsitako arduraldi egunak	54
4.4.3. Borondatezko lanei eskainitako orduak.	55
4.4.4. Inplikazioa erakundearen lanetan	55
V. KAPITULUA 2003-2008 KONPARAZIOA	57
5.1. Egungo boluntarioekiko konparazioa.	59
5.2. Izan daitezkeen boluntarioekiko konparazioa	60
VI. KAPITULUA ONDORIOAK	63
I. ERANSKINA AZTERLANAREN FITXA TEKNIKOA	69
II. ERANSKINA TAULAK	75
III. ERANSKINA ERABILITAKO GALDERA SORTA	107
TAULEN AURKIBIDEA	121
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	125
BIBLIOGRAFIA	129



Sarrera

1. AZTERLANAREN HELBURUA

Azterlan hau 2004ko Bizkaiko boluntariotzari buruzko lehenengo azterlanaren eguneraketa da, Bizkaiko boluntariotzari buruzko lehenengo azterlan soziologikoa. Aurrekoan bezala, helburua Bizkaiko talde horren errealitatea ezagutzea da, eta 2008. urtearen amaieran boluntario gisa laguntzen duten Bizkaiko biztanleen kopurua eta ezaugarriak modu zehatzean ezagutzea, baita gainerako biztanleen gogoia boluntario izateko.

Gainera, Bizkaiko gizarte entitate ezberdinetan boluntario gisa parte hartzera, edo parte hartzen jarraitzera animatzeko beren erabakia baldintza dezaketen bultzagarri eta faktore nagusiei buruz argitzen laguntzea du helburu. Bereziki boluntarioen bultzagarri nagusiak interesatzen zaizkigu, giltza diren hiru puntutan arreta jarritz:

- zeintzuk diren boluntario izatera edo ez izatera animatzen duten arrazoiak;
- zein faktorek eragiten duten zuzenago erabaki horretan eta/edo boluntario konpromisoari eustean;
- zeintzuk diren boluntariotzan jarduteko interes gehien duten esparruak.

Azken batean, azterlan honen asmoa Bizkaiko biztanleek boluntariotzaren eta azken 5 urteetan zehar izandako bilakaeraren fenomenoaren aurrean duten jarrera islatzea da.

Gainera, azterlan berri honek azken bosturtekoan zehar alderdi horien bilakaera ezagutzen laguntzeko konparazioa ahalbidetzen du.

2. OINARRIAK

Mugimendu bizia eta aldakorra

Boluntariotza mugimendu bizia da eta behin eta berriz aldatzen dena testuinguruaren aldaketa eta berezitasunetara egokitze ahalmen handiarekin. Denboraren poderioz gizartean

protagonismo handiagoa lortzen ari da, batez ere hurbilen duen ingurunearekin, izan ere, bere inguruko jende ugari mobilizatzeko gai da. Horregatik fenomeno handia, heterogeneoa eta konplexua da, eta horrek aukerak zaildu ohi ditu mugimendu horren hurbilketa kuantitatibo eta kualitatiboa egiteko, eta hurbilketa horrek errealitatearen hurbileko argazkia izatea ahalbidetzen du.

Ziurgabetasuna etorkizuneko bilakaeran

Egungo gizartea eta bere aldaketak faktore batzuk gehitzen ari dira, neurri batean boluntarioen jardueraren ikuskeran aldaketak eragiteko arriskua dakartenak: lan irtenbide bezala ulertzen den boluntariotza, gure gizarteko balio solidarioen krisia, hirugarren sektorearen merkantilizazioa. Boluntarioen jarduerak bilakaera zein parametrotan izango duen ez denez ezagutzen, azterlan hau egiteko premiak zentzu gehiago du. Boluntario erakunde asko aldaketa horiek arduraz bizi izaten ari dira, eta dauden proiektuetan jende berria sartzeko zailtasunak nabarmenak dira.

Zergaitik egin Bizkaiko boluntariotzari buruzko azterlan bat?

Boluntariotzaren II. Euskal Planak ahultasun gisa EAE osoan sektoreari buruzko ikerketan gabezia antzeman zuen. Azterlan honek, eskari horri erantzuteaz gain, EAEko biztanle gehien dituen lurralde historikoko boluntarioen diagnostikoa ezartzea du helburu, erakunde eta boluntarioen kopuru garrantzitsua mugitzen duena.

Azterlan honen asmoa, gainera, herritarrengana hurbiltzeko ekintzen eta proposamenen diseinua ahalbidetzea da, Bizkaiko boluntario erakundeek aldetik. Azken batean, Bizkaiko boluntarioen ekintza garatzeko eta finkatzeko baliabidea izan nahi du, boluntarioen hautabidea ikaragarri erabilgarria den jarduera gisa ezagutzera emanez eta, gainera, Bizkaiko biztanleentzat are erakargarriagoa eta izaten errazagoa dena.



3. AZTERLANAREN HELBURUAK

Honako hauek dira azterlanarekin lortu nahi diren helburuak:

- gaur egun gizarte erakunde batean boluntario gisa laguntzen duten Bizkaiko biztanleen portzentajea, behin boluntario izan zirenen baina orain ez diren biztanleen portzentajea (galgutako boluntarioak) eta inoiz boluntario izan ez direnen baina boluntario izateko interesa erakusten dutenen portzentajea (izan daitezkeen boluntarioak) ezagutzea.
- ezaugarriak ezagutzea – egungo boluntarioen, galgutako boluntarioen eta izan daitezkeen boluntarioen profilak;
- boluntario izatea aukeratzean modu positiboan eragiten duten bultzagarri eta faktore nagusiak ezagutzea; pertsonen boluntariotza utzi izana arrazoitzeko ematen dituzten arrazoi nagusiak ezagutzea; eta izan daitezkeen boluntarioek aintzat hartzen dituzten inhibitzaileak eta bideratzaileak ezagutzea;
- jarduera esparru nagusiak, lanak, arduraldia eta boluntarioen konpromisoa ezagutzea.
- boluntarioak diren pertsonen boluntariotza esperientziari buruzko balorazioa ezagutzea;
- intereseko jarduera esparruak, arduraldirako astia eta izan daitezkeen boluntarioen konpromisoa identifikatzea;
- xede diren jende aipagarrienen eta boluntarioen irudia kudeatzeko eta jende berria erakartzeko orduan esanguratsuenak diren aldagai zehatzen identifikazioa erraztea.
- azken 2003–2008 bosturtekoan zehar izandako bilakaera/joerak ezagutzea. (erreferentzia bezala boluntaren boluntariotzari buruzko lehenengo azterlana hartuz).

4. AZTERTUKO DENAREN MUGA

Boluntariotza kontzeptua:

Aztertuko diren biztanleak Bizkaiko Lurralde Historikoko 16 urte baino nagusiagoak diren biztanleak dira.

Azterlan honetan 1998ko ekainaren 25eko Boluntariotza Legean ezartzen den boluntarioen definizioa hartuko da kontuan, beraz, gizarte partaidetzako beste moduak ez dira aintzat hartuko.

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren arabera, boluntariotza pertsona fisikoek garatutako interes orokorreko jardueren multzoa da, betiere ondorengo baldintzetan burutzen badira:

- modu desinteresatuan eta izaera solidarioarekin;
- boluntarioa eta libreki egindakoa, lan, funtzionario edo merkatu harremanak arrazoi izan gabe, edo betebeharrak pertsonal edo eginbehar juridiko bat;
- irabazi asmorik gabeko erakundeen bidez, eta programa edo proiektu ezberdinei jarraiki;
- ordainsari ekonomikorik gabe;
- edonola ere, ordaindutako zerbitzu profesionalik ordezkatu gabe.

Proiektu honetan agertzen diren antolatutako boluntariotza esparruak boluntariotzaren euskal legean jasotzen direnak dira, eta ondoren datozenak:

- Gizarte Boluntariotza
- Garapen Lankidetzarako Boluntariotza
- Ingurumen Boluntariotza
- Erkidego Boluntariotza
- Kultura Boluntariotza
- Hiritar Boluntariotza

Azterlana Bizkaiko Lurralde Historikoan gauzatzeko dago diseinaturik. Bizkaiko eskualde guztietan jartzen da arreta, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskualdekapenaren arabera aintzat hartutakoak, multzoaren ikuspegia eta Bizkaiko boluntariotzaren argazki erreal lortzeko, bereziki Bilbo Handia aldera mugatu gabe.

5. AZTERLANAREN MUGA

Gutxieneko adina 16 urtetan ezartzeko arrazioa (eta ez 18 urtetan Espainiako estatuko edo Europako beste azterlan batzuetan bezala) etorkizunean boluntariotzan jarduteko adin txikiko biztanleen alde aurretiko jarrera epe labur-ertainera nolakoa izango den ezagutzea proposatzen delako da.

Azterlanerako intereseko taldeak mugatzeko helburuarekin, biztanleriaren hiru segmentutan banatu ditugu taldeak:

- egun boluntarioak diren pertsonak;
- egun boluntarioak ez diren pertsonak baina inoiz izan direnak;
- inoiz boluntarioak izan ez diren pertsonak

Boluntario gisa inoiz parte hartu ez duten pertsonen kasuan, interesa duten eta interesik ez duten pertsonen artean ezberdinduko ditugu.

6. TXOSTENAREN EGITURA

2009ko Bizkaiko Boluntariotzari buruzko Azterlana gaikako bost kapitulutuan dago banatuta eta seigarren kapitulu bat dago horiei buruzko ondorioena dena. Lehenengo kapitulua Bizkaiko egungo boluntarioei buruzkoa da, hau da, 2008. urtearen amaieran boluntariotzan jardun ziren

pertsonak. Bigarren kapituluak, galdutako boluntarioak izenekoak, jadanik boluntarioak ez diren pertsonen azterketa eskaintzen du, nahiz eta lehenago izan diren. Hirugarren kapitulua, izan daitezkeen boluntarioak, egun boluntarioak ez diren baina izan nahi duten Bizkaiko pertsonen buruzkoa da.

Lehenengo hiru kapituluaren ondoren, Bizkaiko biztanleek boluntariotzaren fenomenoaren aurrean duten iritzia eskaintzen dutenak hiru modalitatetan banatuz, laugarren kapituluan Bizkaiko biztanleen hiru maila horien konparazioa dator. Azkenik, bosgarren kapituluak 2004ko Bizkaiko Boluntariotzari buruzko Aztelanean jasotako datuen eta txosten berri honetan aurkeztutako arteko konparazioa ezartzen du, oro har azalduta.

Seigarren kapituluak Bizkaiko boluntariotzaren ondorio eta alderdi aipagarrienak ezartzen ditu, aurreko kapituluetan ikusitakoak.



I. kapitulua

Egungo boluntarioak

Kapitulu honetan Bizkaiko gaur egungo boluntarioen egoeraren deskribapena egingo dugu: profiletik hasita boluntarioaren arduraldi eta konpromiso mailaraino, pertsona bat boluntario izatera bultzatzen duten arrazoi ohikoenak azalduz, boluntario erakundearen ezagutzera nola iristen den eta Bizkaiko boluntarioek gehien esku hartzen duten gizarte esparrua zein den, baita lehenespenez gehien jarduteko esparru geografikoa ere. Aztertzea xede den pertsona inkesta egin deneko azken urtean, 2008. urtearen amaieran, boluntario izan dena da.

Gaur egungo Bizkaiko boluntarioen egoera abiapuntu izango da eta horren bidez gure lurraldean fenomeno horren eraginaren oinarritzko ondorioak atera ahal izango dira, kapitulu honetan burutuko den lana. Ondorengo kapituluetan, boluntarioen maila jakin batean eragiten duten faktoreak zein boluntariotza maila handiagoa ez lortzeko arrazoiak aztertuko dira, baita boluntarioak ez direnen arrazoiak boluntario ez izateko edo egunen batean boluntario-erakunde baten parte izan nahi ez duten biztanleen nahia zein den ere.

Halaber, kapitulu honetan Bizkaiko boluntarioek beren esperientzia nola baloratzen duten jasoko da, hau da, boluntario gisa egindako lanarekin duten gogobetetasun maila; alderdi horren bidez beren igurikimenak zein neurritan betetzen ari diren eta jarduera horren barruan dituzten helburuak argi diezazkiguke.

2008an, Bizkaiko boluntarioek 18 urte¹ baino nagusiagoak diren Bizkaiko biztanleen %11 osatzen zuten gutxi gorabehera, eta horiek, azken batean, datuak biztanleria errealerara estrapolatuz, 107.400 pertsona inguru ziren. Bizkaiko borondatezko jarduerak duen garrantzia erakusten duen biztanleen portzentaje garrantzitsua da eta gure lurraldearen apustua egiten dute elkartasunerako, laguntza desinteresaturako, eta are garrantzitsuagoa dena, konpromisorako, Bizkaiko gizarte garapenean modu aktiboan inplikaturak dauden milaka pertsonak.

Nahiz eta errealitate horren azken arrazoiak ikusteko egon, kapitulu honetan ikusiko dugu hainbat direla Bizkaitarrak boluntario izateko arrazoiak, baina oro har, boluntario guztiek gainerako pertsonari laguntzearen satisfazioa eta lan hori egitearen satisfazio pertsonalaren nahia dute, boluntariotza lanaren balio sozialaren uste osoa izateaz gain. Hala ikusita, datu horiek Bizkaiko biztanleen kontzientzia sozialaren mailaren nahiko adierazgarriak dira.

Ondorengo datuen azterlana talde zabal horren eta bere lanaren aitortpen gisa izan dadila.


1.1. EGUNGO BOLUNTARIOEN PROFILA

Daturik garrantzitsuenak aztertu ondoren, aurreratu dezakegu Bizkaiko boluntariotzak oso ondo zehaztutako ezaugarri batzuk dituela, ondoren aipatzen ditugunak.

1. Sexuen artean nolabaiteko oreka dago.

Nahiz eta Bizkaiko boluntarioen portzentaje handiena gizonak izan (%51), argi dago bi sexuen artean oreka dagoela. (ikusi 1. Grafikoa)

1. Grafikoa. Boluntarioak sexuaren arabera %etan




¹ Jakinarazi behar da aztertzea helburu den biztanleria 16 urte baino nagusiagoak izan arren, biztanle boluntarioak izaten 18 urterekin hasten dela; hori da pertsona bat erakunde batean boluntario bezala legez onartua izan ahal izateko adina.




2. Jadanik adinean sartuta dauden boluntarioak dira. Bizkaiko boluntarioen gehiengoak 40 urte edo 40 baino gehiago dituzte (%62k), eta horietatik %32 60 urte edo nagusiagoak dira. Adin baxuena dutenen taldea 16 eta 22 urte artekoak osatzen dute (%7) (ikusi 2. grafikoa)

2. Grafikoa. Boluntarioak adinarean arabera %etan



3. Ikasketa maila ez da oso eragin handiko faktorea: Bizkaiko boluntarioen %32k adierazi du maila ertaineko ikasketak edo goi-mailakoak dituztela, nahiz eta %27k, nahiko kontuan hartzeko portzentsajea dena, lehen mailako ikasketak izan, eta orokorrean ikasketen mailari dagokion banaketa nahiko homogeneoa da. Esanguratsua da %3 baino ez dela inolako ikasketarik ez duen taldea.

3. Grafikoa. Boluntarioak ikasketa mailaren arabera %etan



4. Bizkaiko boluntarioen gehiengoak besteren konturako soldatapekoa da (%45). Beheko taulako datuetan ikus daitekeen bezala, gainerako lan kategoriek portzentsaje baxuagoak dituzte. Hala ere, jakinarazi behar da %20 erretiroa hartutakoak, pentsiodunak edo ezgaituak direla, eta, beraz, langabeak direla. Hala eta guztiz ere, langabea izatea ez da boluntariotzara jotzeko irizpidea, izan ere, %6 bakarrik dago langabezia.

LANBIDE NAGUSIA	%
Ikaslea	7
Langabezia	4
Etxeko lanak	16
Besteren konturako soldatapekoa	44
Norberaren konturako langilea	7
Erretiroa hartutakoa, pentsioduna, ezgaitua	20
Bestelako egoerak	1
Ed/Ede	1

5. 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan daude. Berez, %94 biztanle kopuru hori baino gehiagoko herrietan bizi dira eta "handi" gisa kalifikatu ditzakegunak dira, azterlan honen ondoretarako.

UDALERRIAREN TAMAINA	%
Handia	92
Txikia	8

6. Bizkaiko boluntarioen herena hiriburuan bizi da, zehazki %31. Guztira, %50 Bilbon eta Ezkerraldea eta Enkarterriak inguruan bizi da, hau da, Bizkaiko biztanleen gehiengoak Bilboko eraginaldean kokatzen da.

ESKUALDEA	%
Bilbao	31
Ezkerraldea-Enkarterriak	19
Nerbioi-Ibaizabal	24
Busturia-Urbe	26

7. Adierazgarria da inkestatutako boluntarioen %26,5ek beren lanbidea gizarte arloari loturik dagoela adierazi izana.



GIZARTE ARLOAREKIN LOTURA	%
Bai	26,5
Ez	73,5

Bizkaiko egungo boluntariotzaren profil soziodemografikoa, orokorrean honakoa izango litzateke:

- Gizona edo emakumea.
- 40 urte baino nagusiagoa.
- Goi mailako ikasketak edo ertainak edo goi mailakoak.
- Besteren konturako soldatapekoa.
- 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan bizi dena.
- Gizarte arloarekin loturikoa ez den trebakuntza edo lana izateko joera.

Boluntario horien artean, interesgarria da gizarte partaidetzarekin loturiko entitate edo erakunde baten parte dela jakitea, boluntariotzan jarduten den entitatea izan ala ez izan. Hori Eranskineko 2. Taulan antzeman daiteke, bertan lehenengo eta behin boluntarioen %60 mota horretako entitate baten (boluntarioa edo ez) parte direla ikus daiteke; %28k lehenago entitate baten parte izandakoak dira eta %12 bakarrik dira inoiz entitate batean ere parte hartu ez dutenak.

Boluntarioek gehien parte hartutako erakunde mota kultura, kirol, hezkuntza eta aisialdi elkarteak dira, boluntarioen %58k parte hartuz, gehienak gizonak (%64). Gizonak gehiengo dira ia erakunde mota guztietan, erlijio erakunde eta elkarte solidarioetan izan ezik, horietan emakume gehiago dago.

Edozein motatako erakunde baten parte izateari dagokionez (ez bakarrik gizarte arlokoak) boluntarioen %26 bakarrik dira erakunde batean ere parte ez direnak, beraz %74 dira erakunde baten parte hartzen dutenak; horietatik %46 gaur egun erakunde bakar batean daude eta %41 bi edo behiagotan (ikus II Eranskineko 3. Taula). Gizonak dira erakunde bakar batean egoteko joera dutenak, nahiz eta erakunde baten ere parte ez diren emakumeak zertxobait gehiago izan. Adin nagusiagoak diren neurrian erakunde gehiagoren parte izateko joera izaten da. Orokorrean, erakunde horietako batean bakarrik gehiago parte hartzeko joera dago, gutxienez batean boluntarioak direnen %7k bakarrik hartu du 4 erakunde edo gehiagotan parte modu aktiboan. %80k parte hartzen duten

erakundeetara ekarpenak egiten dituzte, gizonen eta emakumeen artean ia bereizi gabe.

Adierazgarria da baita ere boluntarioak direnen artean gizarte partaidetzarekin loturiko zein jarduera mota burutzen duten (ikus II Eranskineko 4. Taula). Gehiengo handi batek, %81ek arropa, elikagaiak eta bestelako baliabideak ematen dituzte, %73k elkarteetan, GKEtan, sindikatuetan, alderdi politikoetan edo parrokiatan parte hartzen dute eta %71k proiektu edo kausa jakinen baterako dirua ematen dute. Emakumeek baliabideak emateko joera handiagoa dute gizonen baino, nahiz eta jardueren gehiengoan gizonak gehiago izan.

Azkenik, garrantzitsua da jakitea egungo boluntarioek azken 12 hilabeteetan erakunde baten boluntario gisa lagundu duten edo ez, erantzunen fidagarritasuna berresteko (ikus II Eranskineko 5. Taula). Boluntarioen %87k baiezkoa erantzun dute, eta beraz azken urtean lagundu ez duten %13 daude; horrek egungo boluntarioen zati txiki batean "huts egite" txiki bat adierazten du, kapitulu honetako erantzunen fidagarritasuna erlatibizatu beharko duena. Beste alde batetik, ez da ezberdintasun esanguratsurik nabarmentzen ez adinari ezta sexuari dagokionez ere.

1.2. LEHENENGO HARREMANA BOLUNTARIOTZAREKIN

Boluntariotzarekin izandako lehenengo harremantzat pertsona bat boluntario erakundera iristen den uneko inguruabarrak hartzen ditugu: orduan zuen adina, boluntario bihurtzea erabakitzeke arrazoiak, erakunde nola ezagutu zuen, erakunde jakin batean sartzeko eragina izan zuten faktoreak, eta abar.

Helburua egungo Bizkaiko boluntariotzako kideak hala jarduten hasteko arrazoiak eta inguruabarrak zeintzuk diren ezagutzea da.

1.2.1. Hasteko adina

Boluntario jardueretan hasteko batez besteko adina 32,4 urte dira. Hala ere, datu hori ez da fidagarriegia erregistraturiko desbiderapen tipikoa dela eta (15,6). Nolanahi ere, gogorarazi behar da boluntario Bizkaitarrek adin aurreratuagoetarako joera dutela, baina hori ez da hasieran ikusitako adinaren datuarekiko disonantea.



Eranskineko 6. taulan arreta jarriz gero, nabari daiteke ikasleak edo langabetuak direnek boluntario lanak nerabezaroan hasi zituztela; ordea, etxeko lanak egiten jarduten direnak 40 urteak pasa ondoren hasi ziren


1.2.2. Arrazoiak

Egungo boluntarioak *mugitu* dituzten arrazoi ezberdinen eragina neurtzeko zerotik ha-

marrera arrazoi batzuen garrantzia kalifikatzeko eskatu da. Pisu gehien duen arrazoiak ekintzaren balio soziala da, batez beste 8,24rekin, eta horri satisfazio pertsonalak (8,12), besteei laguntzearen satisfazioak (7,99) eta nire inguru hurbilena- ren edo gizartearen hobekuntzan parte hartzeak (7,59) jarraitzen diote.

Garrantzi gutxien duten arrazoitzat bakardadetik ihes egitea (3,56), erlijio arrazoiak (3,42) eta politikarekiko interesa (2,41) jotzen dira.

4. Grafikoa. Boluntarioen arrazoiak. Batez bestekoak



Balio soziala eta satisfazio pertsonala Bizkaiko boluntariotzaren arrazoi nagusitzat jotzen dira, eta alderdi ideologikoen edo boluntarioen benetako arrazoiekin (aisialdia betetzea, ondo pasatzea) teoriar harreman zuzenik ez dutenek ez dute Bizkaiko boluntarioentzat gehiegizko garrantzirik. Horrek boluntario lanerako motibazioa argi eta garbi desinteresatua dela adierazten du.

Sexuei dagokienez (ikusi II. Eranskineko 7. Taula), beste pertsonen laguntzearen satisfazioak eta satisfazio pertsonalak emakumeentzat garrantzi handiago dute balio sozialak baino, baina gizonentzat hori da arrazoi nagusia.


Adinari dagokionez, ezberdintasun esanguratsuenak erlijio arrazoiak dira, izan ere, 60 urte baino nagusiagoek 5,61eko garrantzia ematen diote arrazoi horri; disfrutatzean eta ondo pasatzean ere ezberdintasuna antzematen da,

horretan gazteenak direnek 8ko balorazioaren 6,78ko batez bestekoa gainditzen dute.

1.2.3. Zelan ezagutu zuten borondatezko lanean ari diren erakundea

Egungo boluntarioen erdiek baino gehiagok (%59k) parte hartzen duten erakundea lagunen, auzokoen edo senitartekoen bitartez ezagutu zuten. Alde handiarekin, erakundea ezagutzeko garrantzia handiena duen bigarren modua norbere kabuz informatzea da (%13,5). Gainerako aukerak (ikusi II. Eranskineko 8. Taula) ez dira %10era iristen. Badirudi beraz ahoz-ahozko prozedura askogatik egungo boluntario Bizkaitarren artean erakunde bat ezagutzeko modu eraginkorra dela. Hori, batez ere udalerririk txikietan hauteman daiteke, eta modu bitxian Nerbioi-Ibaizabal aldean, han %70ek erakundea modu horretan ezagutu dute

5. Grafikoa. Zelan ezagutu zuten borondatezko lanean ari diren erakundea. Egungo boluntarioak. %ak guztira




1.2.4. Erakundea aukeratzeko faktoreak

Erakunde bat aukeratzeko arrazoi nagusia erakundeak burutzen duen jarduerarekiko interesa da (kasuen %94). Erakundeko giza taldea da bigarren faktorerik erabakigarriena (%90), eta ondorengoa ideiak kasuan kasuko erakundearekin bat etortzea (%85). Orduategia bezalako faktoreak nahiko eragin txikiagokoak izaten dira, nahiz eta arrazoi guztiek gutxienez inkestaturiko pertsonen erdia baino zertxobait gehiago konbentzitzen ditzutela iruditu.

Ondorioztatuz, esan daiteke boluntarioek Bizkaiko boluntariotzarekin duten lehenengo harremana 32 urte inguru izatean gertatzen dela orokorrean eta hori helduarorako joera duen boluntariotzaren arrazoa izana dirudi.

6. Grafikoa. Erakundea aukeratzeko faktoreak. Egungo boluntarioak. %ak guztira



Balio sozialaren eta satisfazio pertsonalaren arrazoiak borondatezko ekintzaren alde egiteko orduan pisu handiena dutenak dira. Horrek, ikusi dugun bezala, boluntarioa kidetuta dagoen erakundearekiko inplikazio garrantzitsua dakar berekin, eta hori jarduerak pertsonagan sortzen duen interesagatik eta erakundearen giza taldeagatik hautatzen da.

1.3. LEHENESPENEZKO INTERESEKO ESPARRUAK ETA TALDEAK

Lehenespenezko intereseko esparru eta taldeek Bizkaiko boluntarioak lehenespenez zuzentzen diren esparruak eta maiztasun handiagotan egiteko taldeak zeintzuk diren adierazten dizkigute. Horrek guztiak boluntario Bizkaitarren


egungo jarduera zein den jakiteko profila ematen digu, baita jarduteko lehenesten duten beren esparru geografikoa zein den ere.

1.3.1. Esku hartzeko gizarte esparrua

Bizkaiko boluntarioen zati handi batek kulturaren eta aisialdiaren esparruan esku hartzen du, zehazki %45ek, eta bigarren tokian Kirola eta aisialdia kokatzen da, %41ekin. Gainerako esparruetatik batek ere ez du %25 gainditzen, eta jende gehienek hartutako hirugarren esparrua garapen lankidetzara eta hirugarren munduari laguntza (%22,5) da, horri erlijioa esparruak jarraitzen dio (%22). Onarpen gutxien duten esparruak babes zibila (%10) eta mendetasunak eta dependentziak (%8) dira.



7. Grafikoa. Egungo boluntarioen esku hartzeko gizarte esparruak. %ak guztira eta sexuen arabera



Agerikoa dirudi esku-hartze esparruari dagokion lehenespena bereziki kulturari, astialdiari eta kirolari dagoela zuzenduta.

Hala ere, %20 baino gutxiago diren hiru esparru zehatz bakarrik izateak (ikus Eranskineko 10. Taula), nahiz eta lehenago aipaturiko bi eremuek nagusitasun argia izan, barietatea adierazten du boluntario Bizkaitarrak sartuta dauden eremuetako arduraldiari dagokionez, batez ere kontuan ere izaten badugu %12 zehaztu ez diren bestelako esparruetan jarduten direla boluntario gisa.

Nahiz eta sexuen araberako lehenetasunei dagozkien ezberdintasunak oso esanguratsuak ez izan, adierazgarria da gizonen taldean Kulturak eta Aisialdiak eta Kirolak eta Aisialdiak lehenetasunen zati handia hartzea, esparru horietako aipamenen erdia baino zertxobait gehiago gaintuz. Emakumeetan alderantziz, bi esparru horiek lehenetasunezkoak izan arren, ez dira hain portzentaje

handietara heltzen eta, orokorrean, esku hartzeko esparru ezberdinen artean oreka handiago dago.

Esanguratsua da, ordea, erlijioa esparruak emakumeak gizonak baino nahiko neurri handiagoan erakartzea; emakumeen artean baiezko erantzunen %31,5ekin gehien bultzatutako bigarren esparrua da (Kirola eta Aisialdiarekin batera)


Adinari dagokionez, esparruak lehenesteko joerak jarraitzen dira gutxi gorabehera. Talde gazteenak (16 eta 22 urte bitartekoa) arreta handia jartzen du Kulturari eta Kirolari eta Aisialdiari (bi kasuetan baiezko erantzunen %75ek), gainerako adinak baino nahiko neurri handiagoan (ikus II. Eranskineko 10. taula). Hala ere, orokorrean, adin taldeen artean ez da gehiegizko ezberdintasunik nabaritzen.

Beste alde batetik, 60 urte baino nagusiagoak diren boluntarioek erlijioa lehenetsitako bigarren esparru gisa adierazten dute (%33), Kirola eta Aisialdia baino lehenago.

1.3.2. Esparru geografikoa

Edozein boluntario erakunderen jarduteko esparru geografikoa askotarikoa da, izan ere, auzo inguruetik hasita nazioz gaindiko inguruneraino barne har dezake. (Ikusi II. Eranskineko 11. Taula).

8. Grafikoa. Esparru geografikoa. %ak guztira



Eguno boluntario Bizkaitarrek lehenesten duten esparrua tokikoa, udalerrikoa edo eskualdekkoa da (%37,5). Horren ondoren auzoa esparrua dago (%24) eta Bizkaiko esparrua (%15). Probintzia esparrutik haratago jarduten direnak erakundeen %23 baino ez dira, eta horren barruan %10 nazioarteko esparruari dagokio. Eguno boluntario Bizkaitarrek inguru murriztuak lehenesten dituztela nabaria da, udalerrria edo auzoa esate baterako, horiek taldearen %60 baino gehiago hartzen dute barne. Hala ere, ez da ate atzean bota behar %10 nazioarteko esparruan jarduten direla adierazten duen datua.

Gazteagoa izatean udalerrria baino esparru handiagoetan neurri handiagoan jarduteko joera dago.


Gizonek ez dute emakumeek beste auzoko esparruan parte hartzen (%19 %29,5ren parean); aldiz gizonek emakumeek baino neurri handiagoan jarduten dute Bizkaia baino ingurune geografiko handiagoan.

Bilbo hiriburuan da nagusi auzoko esparrua (%40), eta azterlanean erabilitako beste hiru aldeztaketek aldiz toki edo eskualde esparruaren alde egiten dute (kontuan izan behar da Bilbon auzo bakoitzeko nortasuna nahiko errotuta dagoela). Busturia-Urbe aldean nazioarteko esparruak auzokoak besteko garrantzia du.

1.3.3. Intereseko taldeak

Bizkaiko egungo boluntarioak lanean ari diren taldeei dagokienez, pertsonen %33k adierazten dute beren ekintza orokorrean biztanle guztiei dagoea zuzenduta. Talde zehatzen artean, Ume eta gazteak taldea da (%23) boluntario gehien biltzen dituen, eta horren ostean alde handiarekin Adinekoak / Hirugarren Adina taldea dago (%13). Gainerakoak ez dira boluntarioen %10era iristen.

9. Grafikoa. Eguno boluntarioen intereseko taldeak. %ak guztira



Sexuei dagokienez, gizonek orokorrean biztanleria guztia lehenesten dute (%46), beste aukera batzuei dagokienez alde handiarekin, aldiz, emakumeek beren lehenespenean nahiko banatuta dituzte, nahiz eta nagusia biztanleria orokorrean izan (%22).

Bilbon Ume eta gazteak taldeak garrantzi handiagoa du beste hiru eskualdeetan baino (ikusi II. Eranskineko 12. Taula), Adinekoak / Hirugarren Adina taldeak bezala, Bizkaia osoko batez beste-koa soberan gaintitzen duen portzentajearekin (%21 %13ren parean).

Azken batean, Bizkaiko boluntarioen artean gaur egun lehenesten diren jarduerak kultura eta aisialdiarekin eta kirolarekin loturikoak dira, beste esparruen gaintetik gailentzen direnak. Jarduteko lehenesten den taldea biztanleria orokorrean da (bereziki talde bat ere ez), kasu gehienetan tokiko edo auzoko esparruan. Bizkaiko boluntariotzak gaur egun hedadura geografiko nahiko txikia du (tokikoa) eta Bizkaitik kanpo jarduteko joera oso urria du.



1.4. KONPROMISO MAILA. ARDURALDIA, EGONKORTASUNA ETA INPLIKAZIOA


Atal hau garrantzitsua da Bizkaiko boluntarioen jardura zehazki nolakoa den esaten duelako: beren konpromisoaren maila eta aldizkakotasuna, borondatezko lanei eskainitako denbora, inplikazioaren bilakaera eta boluntarioek beren erakundeetan zein zeregin zehatz burutzen dituzten. Modu horretara, boluntarioak direnek Bizkaian burutzen den borondatezko lanari emandako arduraldia zehaztu daiteke, beraz, horrek lan honen kalitateari buruzko adierazgarriak eman diezazkiguke.

1.4.1. Konpromisoa

1.4.1.1. Ohizkotik aldizkakora

Bizkaiko boluntario gehienek maiz edo modu jarraituan laguntzen dute parte diren erakundearen jardueretan (%68), gainerakoek, aldiz, noizbehinka laguntzen dute jardura zehatz edo puntualetan. Boluntario Bizkaitarren jardura, beraz, nahiko konstantea da.

10. Grafikoa. Konpromiso maila. %ak guztira



Konpromisoari dagokionez gizonak emakumeak baino zertxobait konstanteagoak dira (ikusi II. Eranskineko 13. Taula).

Adinari dagokionez, 23 eta 29 urte dituztenen taldea da konstanteena beren jardueretan, horri 16-22 eta 60 urte baino nagusiagoak direnen taldeak jarraitzen dio alde txikiarekin; azken taldea Bizkaiko boluntariotzan jende gehien biltzen duen


taldea da. Adin talde guztiek konpromiso jarraitua dute gehienbat, nahiz eta 30 eta 39 urte artekoek lanak noizbehinka burutzen dituztenen portzentaje nahiko handia izan.

Bilbok eta Ezkerraldeak, nahiko urbanizatutako bi alde, Bizkaiko gainontzeko eskualdeetan baino konpromiso maila ohikoagoa erakusten dute.

1.4.1.2. Aldizkakotasuna

Egungo boluntario Bizkaitar gehienek (%64) boluntario lanarekiko konpromisoa astero mantentzen dute.

11. Grafikoa. Konpromisoaren aldizkakotasuna. %ak guztira



1.4.2. Lehenetsitako arduraldi egunak boluntarioen jarduerarako

Bizkaiko egungo boluntarioen %43k aste-buruetan edo astegunetan laguntzen dute beren erakundeetan, eta %37k aste barruan egiten du. 50 urtetik aurrera, bereizten ez diren egunetan parte hartzeko joera hori, boluntario gisa parte hartzen duten gainerako adinetan modu esanguratsuan antzemandakoa, aste barruan parte hartzera aldatzen da (ikusi II. Eranskineko 15. Taula).

1.4.3. Egonkortasuna


1.4.3.1. Borondatezko lanei eskainitako denbora

Borondatezko lanetan egindako denbora boluntarioen adinak baldintzatzen du logikoki. Hala, joera erregularrik ez antzemateaz gain (ikusi II. Eranskineko 16. Taula), kontuan izan behar da 40 urtetik aurrerako adina dutenen gehiengoak egonik, logikoa dela boluntario gehienek bolun-

tario lanetan 5 urte baino gehiago egin izana (%62,5), portzentaje garrantzitsua izanik 10 urte baino gehiago egin dituztenek (%45,5). Horrek adierazten du Bizkaiko boluntarioek ikaragarritzko beteranotasuna dutela.

%20k 1 eta 3 urte artean lan hori egin izanak adierazten du boluntariotzara iristen azken-aurreko pertsonak gutxienez beren boluntario lana mantendu ahal izan dutela, nahiz eta boluntariotzan urte 1 baino gutxiago egin duten pertsonen portzentaje urriak (%5,5) azken urtean boluntariotza asko ez dela hazi adierazi.

12. Grafikoa. Arduraldi urteak. %ak guztira



Adinen araberako datuek adierazten dute 29 urte baino gazteagoak diren boluntarioek ere portzentaje handiarekin boluntariotza lanak egiten eman dutela (3 urte baino gehiago), eta horrek erakusten du azken urteetan jende gazte gutxi sartu dela. Orokorrean, boluntario Bizkaitarren artean jende berria sartzea azken urteetan eskasa izan da, eta horren ondorioz boluntario Bizkaitarren profila zahartzen eta beterano bihurtzen ari da. Gaur egun boluntario diren hain jende gazte gutxi egoteak (30 urte baino gazteagoak) gure lurraldeko boluntariotza gazteagotzea estatusunean jartzen du, eta gainera boluntarioen hazkundeari dagokionez etorkizuneko bilakaerari ziurgabetasuna gehitzen dio.

Udalerrri txikietan, boluntarioek 3 urte daramatzate gutxienez. Ezkerraldea-Enkarterriak aldean portzentaje handi batek 10 urte baino gehiago daramatza jadanik. Urte 1 baino gutxiago daramaten boluntarioen zati handi bat Bilbokoa da; aldiz, Ezkerraldea-Enkarterriak eta Nerbioi-lbaizabalen ez da erregistratu azken urtean boluntariotzan sartu denik.

1.4.3.2. Borondatezko lanei eskainitako orduak


Boluntario Bizkaitarren portzentaje handienak (%45) 1 eta 3 ordu artean ematen ditu astero boluntario jardueretan. %80k, hau da, gehiengoak, 1 eta 6 ordu bitartean eskainiko lituzke. %20k 6 ordu baino gehiago eskainiko lituzkete.

Gizonak dira ordu gehiago emateko joera izaten dutenak. 23 eta 29 urte bitarteko pertsonak bakarrik ematen dituzte astero 12 ordu baino gehiago.

Busturia-Urbe da ordu gutxien emateko joera duen aldea, izan ere, %87k ez dituzte asteroko arduraldiko 6 orduak gainditzen. Hala ere, ez da gehiegizko ezberdintasunik nabaritzen aldeztaketa bakoitzeko.

Labur esanda, ezin daiteke esan boluntarioek astero ordu gehiegi ematen dituztela, izan ere, ia erdiek ez dituzte asteroko hiru orduak betetzen; nahiz eta konpromisoa denboran konstantea eta jarraitua izan.

13. Grafikoa. Boluntariotzari eskainitako orduak. %ak guztira




1.4.3.3. Inplikazio mailaren bilakaera

Boluntarioen %42k baieztatzen dute beren konpromisoa handitu egin dela, eta %37k aldiz berdin jarraitu duela. Hau da, inplikazioa handitzeko joera positiboa dago, eta beren konpromisoa gutxitu dela adierazten duten pertsonak gutxiengo dira (%21).

Ikus daiteke, adinean gora egiten den neurrian, orokorrean inplikazioak handitzeko joera izaten duela, edo gutxienez berdin mantentzeko (ikus Eranskineko 18. Taula). Agerikoa dirudi adinean nagusiagoa denean inplikazioa handitu eta egonkortzen dela, nahiz eta ordu gutxiago eman.



14. Grafikoa. Boluntarioen inplikazio mailaren bilakaera. %ak guztira eta sexuaren arabera



Bizkaiko biztanleriaren dentsitate gutxiagoko aldeetan, Nerbioi-Ibaizabal eta Busturia-Uribe bezalakoetan inplikazioak berdin mantentzeko joera izaten du; Bilbon eta Ezkerraldea-Enkarterrietan ordea, batez bestekoaren gainetik nahiko handitzen da (ikusi Eranskineko 18. Taula).

1.4.4. Inplikazioa erakundearen lanetan


Boluntarioek burututako lan gisa aipatzen diren aukeren barietate handiaren barruan, gauzatuakoa jarduera zehatz batean "eskua luzatzea" (laguntzea) da, eta horretan Bizkaiko boluntarioen %83 handi batek hartzen du parte. Boluntario taldearen zati handiena barne hartzen duen

erantzunen beste portzentaje bat esku-hartze zuzena pertsonekin edo laguntza lanak dira, boluntarioak diren pertsonen %77k burututakoa. Hirugarren tokian, alde handiagoarekin, dohaintzak egitea (erantzunen %58) eta animazio lanak (%57) daude. Gainerako jardueretako bat ere ez da iristen erantzunen erdietara.

Lan bakoitzaren inguruan emandako erantzunen nahiko portzentaje handiek pertsona batek boluntario gisa gauzatu ditzakeen jardueren barietate handiaren ideia ematen dute. Gutxi gorabehera jarduera puntual eta zehatzerako joera izan arren, horrek ez du esan nahi jarduera zehazten ez denik, izan ere, ikus daitekeen bezala, laguntza bezalako lanak daude portzentaje handiak burutzen dituenak. Beste era batera esanda, badirudi Bizkaiko boluntarioak nahiko aktiboak direla inplikatzeko zeregin kopuruari dagokionez eta beti jarrera aktiboa izanik burutzen dituzte (zuzeneko esku-hartzea, animazio lanak, jarduera zehatzak).

Beste alde batetik, azpimarratu behar da dohaintzak egitea, baiezko erantzunen %58rekin, gure ikuspuntutik ez dela borondatezko jardueratzat hartzen, izan ere, ekarpenak egiten dituen bazkidearen figura gisa hobeto legoke. Hala ere, garrantzitsua da datuan arreta jartzea, izan ere, adierazten digu boluntario Bizkaitarren erdiak baino gehiagok beren denbora emateaz gain, borondatezko lanean ari diren erakundera dohaintzak egiten dituztela. Dohaintzak 50 eta 59 urte bitarteko boluntarioek egiten dituzte batez ere.

15. Grafikoa. Inplikazioa erakundearen lanetan. %ak guztira





Gizonek zein emakumeek jardueren lehenespen hurrenkera nahiko antzekoa izan arren, orokorrean, gizonezkoen taldeak emakumeenak baino jarduera gehiagotarako ardura izateko joera izaten du, gizonen portzentajeak emakumeenak baino handiagoak izanik. Ezberdintasunik nabarmenena koordinazio-zuzendaritza lanetan antzematen dena da, gizonen %54k eta emakumeen %35ek buruturikoak (ikus II. Eranskineko 19. Taula).

Ia adin guztietan, gazteenen artean izan ezik, horretan animazio lanak dira nagusi, jarduera konkreturen batean laguntzea lehenesten den jarduera da; beste horrenbeste gertatzen da zuzeneko esku-hartzearekin eta bigarren jarduera bezala laguntzarekin. 60 urte baino nagusiagoak direnen taldeak beti batez besteko osoaren azpitik burutzen ditu jarduerak eta ia beti gainerako adinekoak baino neurri txikiagoan.

1.4 kapituluaz azaldutako datu guztiak ikusita esan daiteke boluntario Bizkaitarrak modu jarraituan eta maiz jarduten direla (astero) 1 eta 3 ordu arteko batez bestekoa emanez; beren bizitzako denbora luzea ematen dute normalean eginkizun horietaz arduratzen, baina inplikazioa ez da denborarekin gutxitzen; eta pertsonentzako laguntza bezalako esku-hartze aktiboa (bereziki) eta animazioa bezalako lanetan, partaidetza handiena duten lan zehatzak dira, dohaintzak egitearekin batera, nahiz eta boluntarioen portzentaje


handienak zehaztuta ez dauden hainbat jarduera konkretuetan eskua luzatu.

1.5. ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA

Boluntario Bizkaitarrek boluntario gisa duten esperientziaren balorazioaren batez besteko nota 8,02 da, Otik (batere pozik) 10era (erabat pozik) bitarteko eskalan, beraz, gogobetetasun maila altua adierazten du. Puntuazio ohikoena 8 da.

Sexuei dagokienez, ezberdintasun handirik egon ez arren, emakumeak zertxobait gogobetago daude gizonak baino. Ez da antzeman adinaren zein eskualdearen arabera datu benetan esanguratsurik.

16. Grafikoa. Boluntario esperientziaren balorazioa. Batez bestekoak





II. kapitulua

Galdutako boluntarioak

Bizkaiko biztanleen artean, gaur egun boluntarioak direnen portzentajeaz gain, 16 urte baino nagusiagoak direnen %19,8 dago inoiz boluntarioak izan baina jadanik ez direnena. Beraz, jakina da Bizkaiko boluntario ohien portzentajea egungo boluntarioena baino handiago dela (%11) eta mantendu izan balitz adin nagusikoak diren biztanle Bizkaitarren %30 izango litzatekeela: boluntario galduak dira, eta kapitulu hau eskainiko diegu, guztira 18 urte baino nagusiagoak diren 193.500 boluntario ohi dira.

Lehenago boluntarioak izandako taldea izango da kapitulu honetako azterlanaren xedea. Lehenagoko boluntario esperientzia nola bizi izan zen eta igarotako borondatezko jarduera horren ezaugarriak zeintzuk ziren ezagutzea interesatzen zaigu, egungo boluntarioak aztertzen egin dugun antzera: beren profil soziodemografikoa, zergatik egin ziren boluntario, nola ezagutu zuten beren lehenagoko boluntario erakundea, zein esparrutan zeuden sartuta, beren konpromiso maila eta boluntariotzan izandako esperientziaren balorazioa.

Oinarrizkoa izango da jakitea ere zergatik utzi zuten boluntariotza eta zein izan zen edo den utzi ondorengo harremana lehenagoko erakundearekin, erakundearen eta bere boluntarioen arteko harremanen artean egon daitezkeen alde ahulak bilatzeko.

Datu horiekin lehenagoko boluntarioen ezaugarri pertsonalak eta taldekoak izango ditugu, eta horrek egungo boluntarioei buruz ateratako ondorioak osatzea ahalbidetuko digu; hala, Bizkaiko boluntarioen bereizgarriak ezarri ahal izango ditugu denbora eskalan (hau da, ez bakarrik gaur egunetik baizik eta baita iraganetik ere). Galdutako boluntarioei buruz lortutako datu horiek azkenik IV. kapituluan alderatuko dira egungo boluntarioenekin eta baita boluntario ez diren baina izateko prest egongo liratekeen pertsonengandik lortutakoekin ere (izan daitezkeen boluntarioak).

2.1. GALDUTAKO BOLUNTARIOEN PROFILA

Lehenago aipatu dugun bezala, Bizkaiko biztanleen %19,8 boluntario izan dira inoiz, baina orain ez dira. 18 urte baino nagusiagoak diren Bizkaiko emakumeen %18 eta gizonen %21 dira.

Sexuei dagokienez oreka dago, gizonen taldea zertxobait gehiago izanik (gizonen %51,5 eta emakumeen %48,5). Hori ikusita, ondoriozta daiteke gizonek emakumeek baino neurri handiagoan, oso alde txikiarekin, uzten dituztela boluntario erakundeak, eta gutxi gorabehera egungo boluntarioen artean dagoen sexuen araberako proportzioan (gizonen %51 eta emakumeen %49). Hau da, egungo boluntarioen eta galdutako boluntarioen artean ez da aldaketa askorik eman.

Adinei dagokienez, galdutako boluntarioak 30 urtetik aurrera biltzen dira, eta 40 urtetik aurrera nagusitasuna duen proportzioa izaten da. Hain zuzen ere 60 urtetik gorakoena da nagusitasuna duen adin taldea (%26,3), egungo boluntarioekin gertatzen den bezala. Erakundea uzteak adinarekin areagotzeko joera izateak argi adierazten du denbora zikloak (adina dela medio uztea) bete egiten direla, nahiz eta horrek ez balio boluntarioak gazteagotzeko.

Busturia-Urbe da boluntario gehien jatorria den esparru geografikoa, lehenagoko boluntario guztien %29,4rekin. Ia %49 Bilbon edo Ezkerrialdea-Enkarterrietan bizi da eta %92 Bizkaiko udalerrri handietatik dator, egungo boluntarioekin gertatzen den moduan.

%39k unibertsitateko ikasketak dituzte (maila ertainekoak eta goi mailakoak) eta orokorrean ikasketei dagozkien proportzioak egungo boluntarioen proportzioen antzekoak dira. Egungo boluntarioen artean gertatzen den moduan baita ere besteren konturako soldatapekoak dira gehiengoa (%46).

%21,6k adierazten dute beren lanak edo heziketak gizarte arloarekin duela zerikusia, egungo boluntarioen antzeko proportzioa.



%51,5ek adierazten dute edozein motako erakunderen batekin daudela elkartuta. %23k baieztatzen dute gaur egun gizarte partaidetza-rekin lotutako entitatearen batean parte hartzen dutela (ikus Eranskineko 22. Taula), gehienetan kultura, kirola eta aisialdia esparruei dagozkien entitateetan; %49 horien parte izateari utzi diotenak dira eta %28 horien parte inoiz izan ez direnak dira. Jadanik erakunde horien parte ez diren horrenbeste jende egoteak boluntarioek beren jarduera uztearekin zerikusia duela dirudi, nahiz eta horiek ez luketen egon behar zuzenean loturik.

Bizkaian galdutako boluntarioen profil soziodemografikoa, azken batean, egungo boluntarioen ia berdina da, galdutako boluntarioen artean txikiagoa den asoziazionismoa izan ezik.

2.1.1. Erakundea uzteko arrazoiak

Zergatik utzi zieten boluntario izateari? Zeintzuk izan ziren boluntariotzatik urruntzeko arrazoiak? Galdera horiei erantzuten saiatuko gara.

Boluntariotza uzteko emandako arrazoiaren artean (garrantzia hurrenkeratzat hartuta hiru ere aipa daitezke), nabarmenena lana eta/edo ikasketak dira (%22,5), eta ondoren familiako obligazioak (%22) eta astirik eza (%13). Gainerako arrazoi-tako batek ere ez du %10 gainditzen. Beste era batera esanda, erakundea uztea, neurri handiagoan, denbora falta dela eta arrazoitzen da, beste edozein arrazoi baino gehiago, esate baterako, interesa falta, ordutegia eta erakundearen ideiekin bat ez etortzea. (ikus II. Eranskineko 23. Taula).


Erakundea bertan behera geratzen delaa eta boluntarioek jarduera utzi behar izana adierazten duen portzentajea %2,5 baino ez da; horrek Bizkaiko boluntario erakundearen egonkortasun ideia ematen du.

Uzteko hiru arrazoi nagusiak gizonentzat eta emakumeentzat berberak dira, nahiz eta emakumeek boluntariotza gizonen baino neurri handiagoan utzi lana/ikasketak edo familiako obligazioak direla medio (bi kasuetan emakumeak %29 dira, gizonak, aldiz, hurrenez hurren %17 eta %15).

Adinka erakundea uzteko arrazoiei dagozkien ezberdintasunak nahiko deigarriak dira. 23 eta 29 urte bitartean bizitzeko tokia aldatzea alde handiarekin arrazoi nagusia da (%44), eta ondoren lana edo ikasketak datoz (%26); 30 urtetik aurrera arrazoi horrek garrantzia galtzen du eta adina aurrera

doan heinean familiako obligazioek indarra hartzen dute, eta hori 40 eta 49 urte bitartean dituztenen lehenengo arrazoi bihurtzen da eta bigarren arrazoi 50 eta 59 urte bitartean dituztenean, hurrenez hurren %29 eta %30eko portzentajeekin, batez beste-ko osoaren gaineratik. 50-59 urte dituztenen taldearen lehenengo arrazoiak lana da (%31). 60 urte baino nagusiagoak diren pertsonentzat, boluntariotza gehien uzten dutenak, zehaztu gabeko beste arrazoiaren bat (%21) da uzteko arrazoi nagusia.

17. Grafikoa. Uzteko arrazoiak. Haztatutako %ak guztira



2.1.2. Ondorengo harremana erakundearekin


Galdutako boluntarioen artean gehiengo handi batek (%60k) ez du inolako harremanik lehenagoko erakundearekin. Hala ere, %17k baieztatzen dute ohiko harremana dutela oraindik, nahiko esanguratsua den datua, eta %15ek noizbehinka.

40 eta 49 urte eta 50 eta 59 urte bitartean mantentzen da gutxien lehenagoko erakundearekin harremana. 60 urtetik gorakoak dira erakundearekin egungo harreman gehien dutenak, izan ere, erdiak baino ez dira erakundearekin inolako harremanik ez dutenak eta %22,5ek ohiko harremana dute.

Alde geografikoei dagokionez, Bilbon eta Ezkerraldea-Enkarterrietan ondorengo harreman gutxiago dago erakundearekin Nerbioi-Ibaizabal eta Busturia-Uriben baino.

Ondoriozta daiteke, azken batean, galdutako boluntario Bizkaitarrek boluntariotza denbora falta dela eta utzi dutela (lana edo ikasketak eta familiako obligazioak, nagusiki) eta gehienek ez dute inolako harremanik mantentzen lehenagoko erakundearekin.

18. Grafikoa. Ondorengo harremana erakundearekin. %ak guztira eta sexuaren arabera



2.2. LEHENENGO HARREMANA BOLUNTARIOTZAREKIN

II.1 puntuan bezala lehenago boluntarioak zirenak boluntariotzan jarduten hasteko arrazoiak eta inguruabarrak ezagutzen ahaleginduko gara.

2.2.1 Hasteko adina

Galdutako boluntarioak hasteko batez besteko adina 24,7 urte dira, hau da, egungo boluntarioak hasteko adina baino nahiko gazteagoak; egungoen batez bestekoa 32,4 urte dira. Beraz, ikus daiteke, boluntariotza nahiko goiz uzteko joera egon dela bereziki gazteagoak diren pertso-

nen kasuan, eta horrek gaur egun boluntarioak zahartzea eragin du.


Nabaria da baita ere orain adinez nagusiagoak diren boluntario ohiak beranduago sartu zirela boluntariotzan (ikus Eranskineko 25. Taula), izan ere, adinez nagusiagoak diren heinean hasteko adina handiagoa da, egungo boluntarioen artean gertatzen den bezala; izan daitezkeen boluntarioen artean hasteko adina logikoki baxuagoa da adin talde guztietan. Gainera kontuan izan behar da 30 eta 49 urte bitarteko pertsonak, galdutako boluntarioen portzentaje nahiko altua osatzen dutenak, 21-24 urte bitartean zituzte-nean egin zirela boluntario; horrek adierazten du boluntario gisa denbora xumea eman zutela adinez nagusiagoak direnekin konparatuz.

2.2.2. Boluntario egiteko arrazoiak

Lehenagoko boluntarioak boluntariotzan hasteko arrazoi ezberdinen Otik 10erako balorazioan puntuazio gehien duena "besteei laguntzearen satisfazioa" da 8,05 punturekin, eta ondoren "satisfazio pertsonala" (7,88), eta "ekintzaren balio soziala" (7,85) daude. Alderantziz, gutxien eragiten omen duten arrazoiak "erlijio arrazoiak" (2,98) eta "politikarekiko interesa" (2,43) dira. Hori guztia hauteman daiteke, neurri handiagoan edo txikiagoan sexua eta adina kontuan hartu gabe (ikus Eranskineko 26. Taula).

Satisfazioarekin erlazioaturiko arrazoiak galdutako boluntarioentzat garrantzitsuenak izan dira, egungo boluntarioentzat bezala; boluntarioen benetako helburuarekin lotura ez duten arrazoiak baino gehiago baloratzen diren moduan (gozatu, ezagutzen ditudaneekin egon, aisialdia bete).

19. Grafikoa. Arrazoiak. Galdutako boluntarioak %ak guztira






2.2.3. Zelan ezagutu zuten borondatezko lanean ari ziren erakundea

Izan daitezkeen boluntario Bizkaitarren erdia baino zertxobait gehiagok (%55) erakundea lagun, auzotarren edo familiako bidez ezagutu zuten. Ezagutzeko bitartekoen gainerakoari dagokionez (ikus Eranskineko 27. Taula) batek ere ez du %15 gainditzen: Bigarrena lantokiaren bitartez da (%14) eta hirugarrena parrokia edo eliza (%10,5).

Argi ikusten da informazio informalak edo ahoz ahozkoak galdutako boluntarioen artean

20. Grafikoa. Zelan ezagutu zuten boluntario erakundea. Galdutako boluntarioak. %ak guztira




indar bereziarekin funtzionatu dutela. Beste alde batetik, esanguratsua da Bizkaiko hiriburuan elizaren bidez erakundea ezagutzeko orduan kontuan hartu beharreko pisua izan duela.

2.2.4. Erakundea aukeratzeko faktore erabakigarriak

Erakundea ezagutzeko faktore garrantzitsuen, boluntariotzan beste garai batzuetan jardun ziren pertsonentzat, jarduerarekiko interesa da argi eta garbi, kasuen %93tan erabakigarria izan den faktorea. Horren ondoren, giza taldea (%82), eta ideiekin bat egitea (%78); faktore horiek jarduerarekiko interesa bezala borondatezko lanean inplikatzeko benetako borondatea islatzen dute. Etxetik edo lanetik hurbil egotea eta ordutegia, alderantziz, garrantzi gutxien duten faktoreak dira.

Laburpen gisa, esan daiteke galdutako boluntarioek erakundeekin izandako lehenengo harremana adinez nahiko gaztea izatean hasi zela, eta horrek beharbada goiz ateratzeko nahian eragin ahal izan du, batez ere adin gazteenetan. Besteei laguntzearen satisfazioa eta baita satisfazio pertsonala eta jarduerarekiko interesa izan ziren boluntariotza hautatzeko orduan gehien baloratutako faktoreak.

21. Grafikoa. Erakundea aukeratzeko nahiko edo oso eragin handikoak faktoreak. Galdutako boluntarioak. %ak guztira



2.3. LEHENESPENEZKO INTERESEKO ESPARRUAK ETA TALDEAK

Egungo boluntarioen artean bezala, jarraian galdutako boluntarioen jarduera esparruak eta boluntarioek gehien landutako taldeak zeintzuk ziren aztertuko dira.

2.3.1. Esku hartzeko gizarte esparrua


Kirola eta aisialdia esparrua onarpen handiena izan duena da galdutako boluntarioen artean, zehazki kasuen %40an. Horren ondoren kultura eta aisialdia / euskara (%34), erlijioa (%27) eta garapen lankidetzeta (%24) daude.

Datu horiek ikusi eta egungo boluntarioen datuekin alderatu ondoren esku hartzeko esparru guztietan boluntarioak birsortzeko ahalmenean pentsatu behar da, baita belaunaldiz belaunaldi esku-hartze esparruekiko lehenespenak berberak direla berrestean ere.

Aipagarriena den datu bakarra da gaur egun kultura eta aisialdia/euskarak galdutako boluntarioetan baino onarpen handiagoa duela (%45 %34ren parean).

Sexuei dagokienez, ez dira antzeman egungo boluntarioen artean ikusitakoak ez bezalako ezberdintasunak, hau da, erlijioa emakumeen esparru nagusia dela eta gizonen kasuan azkenetarikoa (ikusi Eranskineko 23. Taula). Adinei dagokienez, esanguratsua da galdutako boluntario gehien dituen adin taldean, 60 urte baino nagusiagoak, erlijioa gehien bultzatutako esparrua izana, %35ekin.

22. Grafikoa. Boluntarioen esku hartzeko gizarte esparruak. Galdutako boluntarioak %ak guztira



2.3.2. Esparru geografikoa

Tokiko eta eskualdeko esparrua izan zen galdutako boluntario gehienek aukeratutakoa %44rekin. Bizkaia bigarren dago alde handiarekin (%21), eta hirugarren lekuan modu esanguratsuan auzoa (%15). EAEn edo hori baino handiagoak diren esparruetan galdutako boluntarioen %20k bakarrik hartu zuten parte, eta Europako edo nazioarteko esparruan %5,5ek.

Adinaren, udalerrriaren tamainaren zein alde-espualdearen arabera zenbatekoak antzekoak dira; aipagarriena dena bakarrik da Bilbon toki/ eskualde esparruak galdutako boluntarioentzat indar gutxiago izan duela beste hiru aldeetan baino (ikusi Eranskineko 30. Taula), eta hiriburuak Bizkaiko esparruan nagusitasuna du.

2.3.3. Intereseko taldeak

Ume eta gazteak taldea da %10 gainditzen duen boluntario lanerako talde zehatz bakarra, horretan jardun ziren pertsonen %29rekin, gizarte osoari orokorrean bezala sailkatutako taldeaz gain (%34), gehien aipatutako erantzuna dena. Nahiz


eta egungo boluntarioen artean antzeko fenomeno jazo, galdutako artean, aipatutako taldeez aparte, ez da talde bat ere %8ra iristen (ikusi Eranskineko 31. Taula), hau da, galdutako boluntarioen artean polarizazio apur bat gehiago eman da egungoan baino, orokorrean gizarte osoan eta ume eta gazteenganako arduraldiari dagokienez. Gaur egun oso neurri eskasean polarizazioa txikiagoa izateak adierazten du talde horietako uzteak soberan konpentsatu direla; gainerakoan, ostera, boluntarioek beren jarduera uztearen eragina oso urria izan da eta ez du ia ondoriorik ekarri.

Adin gazteagoetan, ume eta gazteak taldean izan zen lan gehien egin zen taldea, nahiz eta 40 urtetik aurrera orokorrean gizarte osoan egin; hori logikoa da borondatezko lana egiteari utzi zaion adina kontuan hartuz. Sexuen arabera ez dago ia ezberdintasunik.

Ikus daitekeen bezala, galdutako boluntario Bizkaitarren intereseko taldeak eta esparruak ia-ia egungo boluntarioen berdinak dira. Beste era batera esanda, jarduera esparruei dagokienez ez da apenas aldaketarik egon.



23. Grafikoa. Intereseko taldeak. Galdutako boluntarioak. %ak guztira



2.4. KONPROMISO MAILA, ARDURALDIA, EGONKORTASUNA ETA INPLIKAZIOA

Denboran zehar aldaketarik edo bilakae-rarik egon den aztertu ahal izateko helburuare-kin, atal hau 1.4 atalaren antzera idatzi da baina duela gutxiko iraganean boluntariotzan izandako arduraldia eta konpromisoa nolakoa izan zen ikuspuntu gisa hartuta.

2.4.1. Konpromisoa

2.4.1.1. Ohizkotik aldizkakora

Bizkaiko galdutako boluntarioen %56k adierazten dute beren konpromisoa aldizkakoa edo noizbehinkakoa zela; datu hori egungo bolunta-rioena baino dezente handiagoa da, %31 baino ez zen. Era berean, galdutako boluntarioen %41,5ek konpromiso jarraitua dute, egungo boluntarioena baino zifra dezente txikiagoa. Hau da, galdutako boluntarioen zati handiak noizbehinkako konpro-misoa zuten gaur egungo konpromisoaren maila altu samarra kontrajarriz.

60 urte baino nagusiagoen taldeak, gal-dutako boluntarioetan ugariena dena, %50ekin boluntarioek maiz izaten zuten konpromisorik altuena mantentzen zuen, nahiz eta egungo bo-luntarioen artean ez duen eragin konpromisoa txikitzean. Hobeto esanda, 40-59 urte arteko pertsonen portzentaje handi batek boluntario izateari uzteak, konpromiso maila baxua zuten

boluntarioak alegia (ikusi II. Eranskineko 32. Taula), egungo boluntarioen artean konpromisoa handitzea ekarri du.

2.4.1.2. Azdizkakotasuna

Galdutaki boluntario Bizkaitarren gehien-go handia beren erakundearen jarduten zen astero (%64).

2.4.2. Lehenetsitako arduraldi egunak boluntarioen jarduerarako

Boluntarioen %39k asteburuetan edo aste barruan egin zituzten boluntario lanak. %20k aste-buruetan egiten zuten eta %4k oporretan. Emaku-meen gizonak baino neurri handiagoan boronda-tezko lana aste barruan egitea nahiago zuten.


Boluntariotzan oporretan jardun izana baieztatzen duten galdutako boluntarioen %4 egoteak (eta gaur egungoen artean bat bera ere ez egoteak) adierazten du oso konprometituak zi-ren boluntarioak galdu direla, nahiz eta zati txiki bat bakarrik osatu. Hala ere, arduraldi egunen le-henespenak apenas izan ditu aldaketak boluntario mota batetik bestera.

2.4.3. Egonkortasuna

2.4.3.1. Borondatezko lanei eskaintako denbora

Galdutako boluntarioen %53,5 erakundearen hiru urte baino gehiago egon dira (ikusi Eranski-neko 35. Taula). %15,5 urtebete baino gutxiago iraun dute, eta horrek 30 urte baino gazteagoak diren hainbat jende gazte galtzea ekarri du (ikusi Eranskineko 35. Taula), talde horretan zati handi bat ez da urtebete egitera iritsi.

24. Grafikoa. Arduraldi urteak. Galdutako boluntarioak. %ak guztira



Nahiz eta zati handi batek 3 urte baino gehiago irautea lortu, kontuan izan behar da %46,5ek ez dituela 3 urteak gainditu. 60 urte baino nagusiagoak salbu, adin guztietan, boluntariotzako 5 urteko muga lanaren jarraitasunaren erdian jartzen dela dirudi. Emakumeek gizonek baino denbora gehiago irauteko joera izan dute.

2.4.3.2. Borondatezko lanei eskainitako orduak

Galdutako boluntarioen arduraldi orduei dagokien portzentajerik handiena 3-6 ordukoa da, %40rekin; aldiz, egungo boluntarioen artean portzentajerik handienak ez zuen asteroko 3 orduko arduraldia gainditzeko (ikus Eranskineko 36. Taula). Beraz, ondorioztatu daiteke boluntariotza

ordu dezente ematen zituen jendeak utzi duela lehenespenez, nahiz eta egoera egungo boluntarioetan antzeko portzentajeekin nolabait orekatu den.


2.4.4. Implikazioa erakundearen lanetan

Jarduera zehatzen batean eskua luzatzea galdutako boluntarioek gehien burutzen zuten lana zen, egindako lanen hainbat aukeraren artean emandako erantzunen %75ekin. Ondoren pertsonekin zuzeneko esku-hartzea eta laguntza lanak (%69) eta animazio lanak (%50) datoz. Guztira, 6 lanek egindakoaren %40 gainditzeko dute, eta horrek adierazten du galdutako boluntarioak jardun diren bitartean lan ugari burutu dituztela.


Galdutako boluntarioek, azken batean, egungo boluntarioen neurri berean jarduera berberak burutu dituzte, jarduera bat baino gehiago hautatzeko eta jarduera puntualetan laguntzeko joera berarekin.

Kapitulu honetan aztertutako guztiaren arabera, Bizkaian galdutako boluntarioak beren garaian aldizka jardun ziren, nahiz eta astero eta asteburu dezentetan eta baita oporretan ere arduratuz. Konpromiso maila egungoena baino handiagoa da emandako orduei dagokienez. 30 urte baino gazteagoak diren galdutako boluntarioak ezegonkorrenak izaten dira. Galdutako boluntario gehienek erakundearen 3 urte baino gehiago iraun dute.

25. Grafikoa. Borondatezko lanei eskainitako orduak. Galdutako boluntarioak. %ak guztira



26. Grafikoa. Implikazioa erakundearen lanetan. Galdutako boluntarioak. %ak guztira





2.5. ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA

Galdutako boluntario bizkaitarrek beren esperientziari ematen dioten batez besteko nota orokorra 7,93 da Otik (batere pozik) 10erako (erabat pozik) eskalan; nota horrek gogobetetasun maila bikaina adierazten du, nahiz eta egungo boluntarioena baino zertxobait txikiagoa izan (8,02).

Adinaren arabera ez dago ezberdintasun handirik (ikusi Eranskineko 38. Taula), nahiz eta boluntario ohien gehiengoaren adin taldeak, 60 urtetik gorakoak, boluntario esperientziaren gogobetetasun handiena izan (8,29).



III. kapitulua

Izan daitezkeen
boluntarioak

Izan daitezkeen boluntario gisa boluntario ez den baina inguruabarrak egokiak izanez gero boluntario izateko prest egongo litzatekeen biztanle taldea hartzen da, kasu honetan Bizkaikoa.

Aurreko kapituluetan ikusi dugu Bizkaiko biztanleriaren %89 inguruk egun ez duela inolako borondatezko lanik egiten, nahiz eta portzentaje horretatik %19,8 jadanik lehenago boluntariotzan aritu izan.

Beraz, 698.500 pertsona inguru, biztanle Bizkaitarren %69 ordezkatzen dutenak, ez dira inoiz boluntario izan. Hirugarren kapitulu honetan Bizkaiko Lurraldean 18 urte baino nagusiagoak diren biztanle gehienak egun edo inoiz boluntarioak ez izateko arrazoiak bilatzen ahaleginduko gara.

Baita interesa dugu jakiteko izan daitezkeen boluntario horien zein kopuru egongo litzatekeen prest egunen batean borondatezko jarduerak burutzeko eta zein neurritan gauzatu litekeen gogo hori. Talde hori boluntariotzan jarduteko faktore erabakigarriak eta bultzagarri nagusiak zeintzuk izango liratekeen ere aztertuko dugu, borondatezko lana egiten hasiz gero zein esparru eta taldetan jardutea gustatuko litzaiokeen eta hartuko lukeen konpromisoa eta egonkortasuna. Beste alde batetik, boluntario ez izatera eramaten duten arrazoi ezberdinak ezagutzen saiatuko gara. Azken batean, etorkizuneko boluntarioen ezaugarri buruzko adierazgarriak lortzen ahalegintzea da.

Ez da ezagutzen izan daitezkeen boluntario horiek benetako boluntario bihurtzeko neurria, baina kapitulu honetako datuek Bizkaiko boluntarioen ezaugarrien eta kopuruaren etorkizuneko bilakaeraren moduari buruzko adierazgarriak eman diezazkigukete, boluntario egitea egingarri ikusten duten pertsonen iritzietan oinarrituta. Izan daitezkeen boluntario horien antzekotasun maila ere azter daiteke aurreko kapituluetan ikertutako beste bi boluntario motekin, jardueren lehenespeneri eta boluntario lana garatzeko moduari (edo garatu nahi izateari) dagokienez ezaugarri komunak dituztela egiaztatuz.

3.1. IZAN DAITEZKEEN BOLUNTARIOEN PROFILA

Beheko taulan inoiz boluntario izan ez diren Bizkaitarren datuak agertzen dira. Horiei buruz labor-labor hitz egingo dugu, izan ere, benetan interesatzen zaiguna boluntario izatera iristeko nolabaiteko interesa erakusten duten pertsonak aztertzea da.

INOIZ BOLUNTARIO IZAN EZ DIRENEN PROFILA. PORTZENTAJE HORIZONTALAK			
		Mendeko aldagaiak	%
		GUZTIRA	100
SEXUA	Gizona		47
	Emakumea		53
ADINA	16-22 urte		7
	23-29 urte		9
	30-39 urte		18
	40-49 urte		18
	50-59 urte		16
	60 urte edo gehiago		32

Bizkaiko gizonen %68 eta emakumeen %70 ez dira inoiz boluntario izan. Boluntario ez diren sexuaren arabera banaketa ez da orekatu, nahiz eta emakumeak gizonak baino gehiago izan. Adinen arabera, gehiengoak 40 urte baino gehiago dituzte.

Inkestatutako pertsonen egindako bi galdera gako zeuden; lehenengo eta behin boluntario izateko interes maila erakustea eta, bigarrena, boluntario *bihurtzeko* probabilitatea kopuru kuantitatiboetan neurtzea. Hala, izan daitezkeen boluntarioen eragin zehatza baloratzen da.

Erakutsitako interesari dagokionez, inoiz boluntario izan ez diren Bizkaitarren %69ren barruan, erdiek zehazki boluntario izateko interesa dutela onartu dute (ikusi Eranskineko 40. Taula); portzentaje hori garrantzitsua da 16 urte baino nagusiagoak diren Bizkaiko biztanle guztien %34,5 delako – guztira 349.250 pertsona izango lirateke -. Kontuan izan behar da, hala eta guztiz ere, portzentajea %9raino jaisten dela boluntario izatera iristeko benetako probabilitateaz galdetzen zaienean.



Interesa duten %50 horien azterketa interresgarriagoa eta esanguratsuagoa izango da.

Interesa dutenen %34,5 (izan daitezkeen boluntarioak) eta Bizkaiko egungo boluntarioak adierazten dituen %11 batuz gero, dezente handia den %45,5 zifra lortuko genuke, hau da, egungo zifraren laukoitza, beraz, oso interesgarria da ikustea zein parametrotan mugitzen diren izan daitezkeen boluntarioak eta zein den beren profila.

Interesa duten pertsona horien erdira bakarrik helduz, eta horien erdiak boluntario gisa laguntzeko konbentzituraz, benetako boluntariotza %81ean handitzea lortuko da, guztira %11tik %19ra pasatuz. Datuak estropolatuz 87.300 pertsona boluntario berri izango lirarteke.

3.1.1. Boluntariotzan jarduteko interesa

Boluntariotzan jarduteko interesa dutenen %50z gain, kontuan izan behar da %19 gehiago oraindik boluntario izan edo ez izan zalantzan dagoela (pentsatu beharko nuke). Gainerako %31k kategorikoki baieztatzen dute ez zirela boluntario izango egoera egokia izan arren ere.


Boluntario ez direnen zati handienak boluntario izateko interesa dutela adieraztea eta portzentaje hori are gehiago handitu ahal izatea kontuan izan behar da; izan ere, Bizkaiko biztanleen ia erdiak, orokorrean, norabide altruista eta/edo solidariodun jardueretan parte hartzeko gai diren boluntario izan daitezkeenak dira.

Interesa duten eta izan daitezkeen boluntario horietako gehienak emakumeak dira. Boluntario izatea ukatzea gizonen artean gehiago ematen da emakumeen artean baino, hori egungo boluntarioen egoeraren bestelakoa da, egungoen artean gizonak zertxobait gehiago baitira. Horrek boluntarioen adinari dagokionez joera aldatzea ekar dezakeela pentsarazi dezake, emakumeen alderantz okertuz, nahiz eta hori erakustea zaila izan.

Hogeita hamar urtekoak dira boluntario izateko interes gehien erakusten dutenak (%60). la gainerako adin talde guztiek dute boluntario izateko interesa talde bakoitzaren kasuan kasuko %50ean, 23-29 urte arteko taldeak eta 60 urte baino nagusiagoen taldeak izan ezik, bietan %40 dira interesa duten pertsonak. Nagusien kasua interesgarria da, izan ere, egungo eta galdutako boluntarioetan gehiengoak duen adin taldea da hain zuzen ere, eta hemen boluntario izatea ukatzen dutenak %47 dira, adin guztietan altuena.

Nahiz eta zalantza dutenen portzentajeak oso antzekoak izan adin guztietan, 30etik 49 urtera bereziki altua da batez bestekoari dagokionez. Gainera adierazi behar da adin horietan ukatzea txikiagoa dela (%20 30-39 urte artean eta %22,5 40-49 urte artean), beraz, adin horretan boluntarioek onar dezaketena oso altua izan daiteke, batez ere 30-39 urte arteko taldearen kasuan. Ez da ahaztu behar ezta ere 16tik 22 urtera %57,5ek interesa erakusten dutela, nahiz eta beste adin batzuetako boluntarioen onarpen handiagoak eta ukapen txikiagoak ez iragarri boluntarioen gatzetzea, nahiz eta gazteen arteko bultzada nabaria izan.

27. Grafikoa. Boluntarioak ez direnek boluntariotzan jarduteko duten interesa. % Horizontalak



BOLUNTARIOTZAN JARDUTEKO INTERESA. IZAN DAITEZKEEN BOLUNTARIOAK. % HORIZONTALAK

		BAI	EZ	Pentsatu beharko nuke ED/EDE
SEXUA	Gizona	40	39	21
	Emakumea	58,5	25,5	16
ADINA	16-22 urte	57,5	25,5	17
	23-29 urte	40	30	30
	30-39 urte	60	20	20
	40-49 urte	55	22,5	22,5
	50-59 urte	56	28	16
	60 urte edo gehiago	40	47	13



Boluntariotzan jarduteko interesa duten pertsonen datu zehatzei dagokienez (ikusi Eranskineko 41. Taula) ikus daiteke pertsona horien %62 emakumeak direla eta, adinari dagokionez, portzentaje txiki batek 30 urte baino gutxiago dituela, horrek ez luke Bizkaiko boluntarioen gaztetzea iragarriko.

%63k 40 urte baino gehiago ditu, 60 urte baino nagusiagoak direnak %25,5 izanik, izan ere, adin talde horretan hasierako interesa hainbestekoa izango ez balitz ere, ez da ahaztu behar Bizkaiko biztanleen artean portzentaje adierazgarria direla. 16-22 urte arteko lehenengo taldean ikusitako interes portzentaje handia, hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da, izan ere, Bizkaiko boluntarioen etorkizuna beren eskuetan dago, biztanleen mugimenduak albo batera utzita.

Boluntario izateko interesa duen jende gehienak (%87) ez du lanik egiten eta ez da ari ezta ere ohituraz gizarte arloarekin loturiko gaietan trebatzen. %48k baieztatzen du gizarte partaidetzarekin loturiko entitate edo erakundeen parte dela. Beraz, pertsona horiek kasu gehienetan gizarte arloarekin loturiko esperientziarik nahiz ibilbiderik gabe entitate horietan sartuko zirenak dira.

3.1.2 Boluntariotzan jarduteko aukera

Boluntario ez diren taldeak egunen baten boluntario izatera iristeko aukera erreala da zehaztasun handienarekin boluntarioen kopurua etorkizuna iragartzen duena. Boluntario ez diren talde guztiari boluntario izateko zein aukera dagoen galdetzean, %9k bakarrik uste du boluntario izatera iristeko aukera handia edo aukera nahikoa dagoela: dagoen aukera azaltzen den interesaren oso bestelakoa da. Dagoen aukera urri horren azken arrazoiak hurrengo atalean argitu ahal izango dira. Eraldaketa hori, eman daitezkeen arren, beti izango da zaila.

Esanguratsua da talde gazteena izatea boluntario izateko aukera gehien ikusten duena (ikusi Eranskineko 42. Taula), boluntario izateko interesa erakutsi duen adin taldea. 23-29 urte arteko taldeak, boluntario izateko interes gutxiago zuena, nahiko aukera txikia ikusten du (%8k bakarrik), eta gainerako adinetan aukera txikituz

doa adinarekin, boluntario izan daitezkeela uste duten 30 eta 39 urte arteko pertsonen %13tik hasita; horrek bigarren portzentajerik altuena adierazten du.

16-22 eta 30-39 urteko taldeek erakutsitako interesa eta aukera dela medio, zentzuzkoa dirudi 16 eta 39 urte artekoak biltzeko ahalegin handiagoak egitea.

Hala ere, ez dira 40 urte baino nagusiagoak bazter utzi behar, izan ere, bereziki 50 eta 59 urte artean boluntario izateko interesa eta aukera in-teresgarria dago.

BOLUNTARIO EZ DIRENAK BOLUNTARIOTZAN JARDUTEKO AUKERA. PORTZENTAJE HORIZONTALAK

Mendeko aldagaiak		Aukera handia	Aukerarik ez
SEXUA	Gizona	7	93
	Emakumea	10	90
ADINA	16-22 urte	20	80
	23-29 urte	8	92
	30-39 urte	13	87
	40-49 urte	10	90
	50-59 urte	11	89
	60 urte edo gehiago	3	97

3.2. LEHENENGO HARREMANA BOLUNTARIOTZAREKIN

Atal honetan aztertzen da nolakoa izango litzatekeen boluntario izateko interesa duten pertsonen balizko lehenengo kontaktua erakundeekin, boluntario izatera bultzatuko litzuketen bultzagarriak eta erakunde bat aukeratzean eragingo luketen faktoreak.

Garrantzitsua izango da baita ere lehenengo harreman hori zergatik ematen ez den ezagutzea, interesa duten pertsonak gaur egun boluntariotzan ez jarduteko arrazoiak aztertuz.

3.2.1. Boluntariotzan ez jarduteko arrazoiak

Interesa duten pertsonak boluntarioak ez izateko arrazoen rankinga ezarriz gero, gehien baloratzen diren bost arrazoiak honakoak direla dakigu:



BOLUNTARIO EZ IZATEKO PISU HANDIENA DUTEN 5 ARRAZOIAK	Nota Otik 10era
1. Beste ardura batzuk direla medio asti falta	7,90
2. Denbora beste jarduera batzuetan erabiltzea lehenestea	4,73
3. Erakundearen atzean nor dagoen ez jakiteak segurtasun eza eragiten dit	4,72
4. Ez dut hori inoiz planteatu	4,59
5. Gizartea hobetzea instituzioei dagokie	4,50


Borondatezko lanean jarduteko benetan pizuzkoa den arrazoi bat baino ez dago izan daitezkeen boluntario guztien artean, garrantziaren arabera Otik 10era 5 baino nota handiagoa duen bakarra: asti falta, 7,9 notarekin. Alde nahiko handiarekin astialdia beste jarduera batzuetan erabiltzea lehenestea bezalako aukerak daude (4,73), erakundearen atzean nor dagoen ez jakitea (4,72), inoiz planteatu ez izana (4,59), eta gizartea hobetzea instituzioei egokitzen zaiela dioten iritziak (4,50). Gutxien eman den arrazoia boluntariotzak ez duela ezertarako balio dioena da (0,96).

Ikusten den bezala, asti eza da arrazoi garrantzitsu gisa nabarmentzen dena; gainerakoek, ostera, garrantzi ertaina edo txikia dute.

Gizartearen hobekuntza instituzioei dagoikiela esaten duen iritzia hainbat jenderena izatea kontuan hartu beharrekoa da.

Sexuei dagokien puntuazioetan ez da ia ezberdintasunik. Adinari dagokionez, esanguratsua da 23 urte baino gazteagoek neurri handi batean informaziorik ez dutela baieztatzea, baita beren astialdia beste jarduera batzuetan erabiltzea lehenestea ere gainerako adinek baino neurri handiagoan.

28. Grafikoa. Boluntariotzan ez jarduteko arrazoiak




3.2.2. Boluntariotzan jarduteko bultzagarriak

Boluntarioak ez direnen taldea boluntario izatera mugitu dezaketen arrazoi batzuk daude, batez ere boluntario izateko benetako interesa dutenean. Hori pertsona bakoitzak boluntario izateko duen edo duela uste duen aukerak baldintzatzen du.

Ondorengo taulan eta grafikoan boluntariotzan sartzeko erabakian eragin dezaketen faktoreak eta parte hartzeko ematen diren arrazoiak laburbiltzen dira, boluntario izateko interesa duten pertsonen artean.

ERABAKIA HARTZEN LAGUNTZEN DUTEN FAKTOREAK	
ERAGIN HANDIA	ERAGIN NAHIKOA
1. Besteei laguntzearen satisfazioa	1. Jendea ezagutzea edo ezagutzen ditudanekin egotea
2. Ekintzaren balio soziala	2. Emaitzak ikustea
3. Satisfazio pertsonala	
4. Ingurua hobetzeko lana egitea	
5. Gozatzea, ondo pasatzea	
6. Printzipio etiko eta moralak	
7. Norbere burua aberastea	
8. Herritarrak sentsibilizatzea	

29. Grafikoa. Boluntariotzan jarduteko bultzagarriak. Izan daitezkeen boluntarioak. Batez besteko puntuazioa



Lortutako batez bestekoei dagokienez, batez besteko puntuaziorik onena duen faktorea besteei laguntzearen satisfazioa (8,43), ondoren ekintzaren balio soziala (8,23), satisfazio pertsonala (8,18), inguru hurbilenaren edo gizartearen hobekuntzan parte hartzea (8,02), eta gozatzea, ondo pasatzea (7,67). Guztira, 7 puntu baino gehiago lortu dituzten zortzi faktore daude; lehenengo 5etatik aparte, printzipio etiko eta moralak, norbere burua aberastea (7,34) eta herritarrak sentsibilizatzea daude. Beste era batera esanda, boluntario izateko erabakian eragina izango luketen faktoreak asko izango lirateke.

Alderantziz, garrantzi gutxien duten faktoreak erlijio arrazoiak (2,54) eta politikarekiko interesa (1,63) izango lirateke. Satisfazioa eta ekintzaren balio soziala arrazoiak berriz gehien baloratu direnak dira; horrek erakusten du

izan daitezkeen boluntarioen artean boluntario lanean benetan erabilgarria den zerbait egiteko identifikazioa dagoela, hau da, boluntarioen azken helburua. Gainera, kontuan izanez gero arrazoi horiek nahiko puntuazio altua lortzen dutela, izan daitezkeen boluntario horiek boluntario izatea nahiko barneratuta dutela ikus dezakegu.

Hala ere, helburua eta boluntario kultura nahiz ondo pasatzea bezain urrutiko arrazoiak boluntario izateko pisudun arrazoi gisa ikusten dira, ezagutzen den jendearekin egotea eragin er-taineko itema den moduan (ikus Eranskinako 44. Taula). Beraz, arrazoi altruisten balorazioaren eta pasadizoakoagoak diren bultzagarriak dituen satisfazio pertsonalaren nahasketa dago. Gazteenek "ondo pasatzeko" arrazoiak neurri handiagoan baloratzen dituzte (8,30 16-22 urte bitartekoan artean).



3.2.3. Erakundea aukeratzeko faktore erabakigarriak

Boluntario izatea aukera gisa ikusten duten pertsonen artean, izan daitezkeen jarduerak garatzeko boluntario erakunde bat aukeratzeko orduan erabakigarriena irizten duten faktorea jarduerarekiko interesa da (boluntario izatea aukera bezala ikusten zuten pertsonen % 97k garrantzi dezente edo handia zuela uste zuten). Horren ondoren, erakundea osatzen duen giza taldea (% 95) eta erakundearen ideiekin bat egitea (% 88). Guztira, aurkeztutako 7 faktoretatik 5ek eragin dezente edo handiko % 80 gainditzen dute (ikus Eranskineko 45. Taula), eta gainerako biak ez dira % 69tik jaisten. Horrek adierazten du faktore guztiak direla garrantzitsuak erakundea aukeratzeko, ordutegia edo fisikoki hurbil egotea bezalako arrazoiak barne. Beste behin, jarduerarekiko interesa erabakigarriena den faktore bezala nabarmentzen da.

Sexuei dagokionez ezberdintasun zein datu esanguratsurik egon ez arren, esan behar da gizonek gehien baloratzen dutena erakundea osatzen duen giza taldea dela eta neurri handi batean emakumeentzat garrantzi handia duena jarduerarekiko interesa da.

Nahiz eta interesa ia adin guztientzat eragin handiena duen arrazoa izan, 40-49 urte bitarteko pertsonentzat giza taldeak eta ordutegiak ere garrantzi handiena dute (% 100ean). Giza taldea 40 urte baino nagusiagoak diren guztiek garrantzi dezente edo handiko bezala baloratzen dute.

Beraz, astirik eza da boluntariotzan ez jarduteko arrazoi erabakigarriena; besteei laguntzearen satisfazioa, ekintzaren balio soziala eta satisfazio pertsonala izan daitezkeen boluntarioak parte hartzera bultzatuko lituzketen arrazoiak dira; egungo boluntarioen arrazoi oso antzekoak dira, nahiz eta izan daitezkeen artean garrantzirik gabeko beste batzuk ere pisua izan. Erakundea aukeratzeko orduan oinarrizko bultzagarria jarduerarekiko interesa da.

3.3. INTERESEKOAK IZAN DAITEZKEEN ESPARRUAK ETA TALDEAK

Boluntario ez direnek, baina izateko interesa dutenak, lehenespenezko intereseko lan egiteko esparru eta taldeak izan ditzakete eta horietan laguntzeko prest egon daitezke. Datu horiek, boluntarioen etorkizuneko bilakaerari buruz ezer argituko ez duten arren, boluntariotzak eragina zein sektore eta kolektibotan izan behar duen ideia bat eman dezakete.


3.3.1. Intereseko gizarte esparrua

Ez dago gaur egun boluntarioak ez diren eta boluntario izateko interesa duten pertsonek modu argian gogokoena izan dezaketen intereseko gizarte esparrurik. Gehienez, aukeratutako lehentasunen %15 gainditzen da (ikus Eranskineko 46. Taula). Intereseko esparruen bereizketa hori jadanik egungo boluntarioen artean antzeman zen.

Kirola eta aisialdia, %15ekin onarpen handiena duen esparrua da, horren ondoren garapen lan-kidetza eta hirugarren munduari laguntza (%14,5) eta kultura eta aisialdia/euskara datoz (%13,5).

Egungo boluntarioei dagokionez ezberdintasun nabarmenetako bat bezala, esan liteke, egungo boluntarioen artean erlijioa esparru nagusi bat dela, eta izan daitezkeen boluntarioen artean aldiz erlijioak garrantzia baxuenetakoa duela. Ingurumenean ere eragin zehatzari dagokionez nolabaiteko jaitziera antzematen da.

30. Grafikoa. Intereseko esparruak. Izan daitezkeen boluntarioak



3.3.2. Esparru geografikoa

Boluntariotzan jarduteko aukera handia edo aukera nahikoa dutela uste duten pertsonen, jarduteko esparru geografiko gogokoena aipatu behar izanez gero, udalerrria edo eskualdeko esparrua izango liriteke (%45). Horren ondoren, alde handiarekin, auzoko esparrua (%28) eta, hirugarren lekuan, Bizkaikoa dago (%19). %8ri baino ez litzaieke gustatuko probintziakoa baino esparru handiagoan jardutea.

Argi eta garbi ikusten da nola lehenesten dituzten esparru txikiak, batez ere tokikoak. %5i

baino ez litzaieke gustatuko EAEn jardutea eta %3ri nazioarteko esparruan. Inork ez du baieztatu estatu mailan jardun nahi izatea.


Bizkaia baino handiagoa den edozein esparru ez da 50 urte baino nagusiagokoen gustukoa. Adin guztietan tokiko esparrua da nagusia.

3.3.3. Intereseko taldeak

Boluntario izateko interesa dutenak dira ume eta gazteak biztanle taldea laguntzeko presuetan egongo zirena, %25,5ekin; ondoren hirugarren adina taldea dago (%14,5), eta %11rekin ezintasun eta minusbaliotasunak dituztenen taldea eta bereziki talde bat ere ez.

Sexuei dagokienez ez dago ia ezberdintasunik. Adinen arabera, aipagarriena da 60 urte baino nagusiagoak direnen artean gehiengo duen intereseko taldea hirugarren adina dela, gainerako adinetan aldiz ume eta gazteak taldea da gehiengo duena.

31. Grafikoa. Interesekoak izan daitezkeen taldeak. Boluntarioak ez direnak. Haztatutako erantzunak. % Horizontalak



Labur esanda, izan daitezkeen Bizkaiko boluntarioentzako intereseko gizarte esparruek laguntza eta kooperazioarekin dute lotura, baita kultura, aisia eta astialdiarekin ere. Ume eta gazteak eta hirugarren adina dira boluntario horientzat borondatezko lana egiteko talde gustukoenak. Boluntariotza esparru txikietan egitea nahiago dute, orokorrean tokikoak eta Bizkaia baino handiagoak ez diren esparruetan.

3.4. ARDURALDIA, EGONKORTASUN ETA ETORKIZUNEN INPLIKAZIOA

Izan daitezkeen boluntarioen inplikazio eta konpromiso maila ez da kasu guztietan berbera izango, egungo boluntarioekin eta galdutakoekin gertatzen zen bezala. Izan daitezkeen boluntarioen balizko inplikazioari buruzko datuek, beraz, etorkizuneko boluntarioen ezaugarriari buruz informagaitzaketeta, eta erakundeen aldetik boluntarioak biltzeko lana bideratzeko ere erabilgarriak izan daitezke.

3.4.1. Konpromisoa

Boluntario izatera iristea egingarri ikusten dutenen erdia baino zertxobait gehiago (%56) aldizkako jardueretan inplikatu litzateke; aldiz, %39 bakarrik inplikatu litzateke modu jarraian. Konpromiso maila, egungo boluntarioen konpromisoarekin alderatuz, nahiko baxua da. Beharbada gehiegi ez inplikatzen nahiak boluntario izatearen zalantzekin lotura du.

60 baino nagusiagoak direnen %80 boluntariotzan modu jarraian eta maiztasunez jarduteko prest egongo lirateke, hala, konpromiso gehien hartuko lukeen adin taldea izanik, eta ostera 22 urte baino gazteagoen %78k noizbehinkako konpromisoa baino ez dute nahi. 50 urte baino nagusiagoak dira azken batean neurri handiagotan inplikatu liratekeenak, nahiz eta gehiegi inplikatut gabe, batez ere 50-59 urtekoen kasuan (ikus Eranskineko 49. Taula).

Datu horiek ez dute zertan etorkizuneko konpromiso maila baxua izan behar, izan ere, neurri handi batean boluntarioen taldea ugartuko duten pertsonen kopuruaren eta profilaren arabera da.

3.4.2. Lehenetsitako arduraldi egunak boluntarioen jarduerarako

Izan daitezkeen boluntarioen gehiengo handiak (%66) borondatezko lanetan aste barruan aritzea aukeratu luke. %19k boluntario lana as-teburuetan edo oporretan burutuko luke, lehenengo aukera lehenetsiz (%17). Modu esanguratsuan, %15ek beren jardueraren burutzeko denbora proposatutakoak ez bezalakoa izatea nahiago lukete.

Adinei dagokienez ez dago ia erregulatzeko joerarik (ikus Eranskineko 50. Taula), baina, azpimarra daiteke 40-49 urte arteko taldea dela bo-



luntariorantz oporretan jardungo zen talde bakarra. 23 urte baino gazteagoak direnen zati handi bat asteburuetan jardungo zen, nahiz eta, adin guztietan lanegunetan aritzea aukeratu.

Sexuei dagokienez, gizonak (%23) emakumeak baino (%16) neurri handiago batean jardungo ziren boluntariorantz jaiegunetan.

Labur esanda, astegunak gogokoago dituzte izan daitezkeen boluntarioek egungoek baino. Hala ere, horrek ez du esan nahi etorkizunean boluntarioek derrigorrean arduraldi egunen joera aldatu behar dutenik, izan ere, joera hori praktikan burutu ahal izatearen araberakoa izango litzateke.

3.4.3. Egonkortasuna: borondatezko lanei eskainitako orduak


Bizkaietan boluntario izan daitezkeen %63 boluntariorantz lanei astero 1 eta 3 ordu eskaintzeko prest egongo lirateke. %14,5ek bakarrik emango lituzkete 6 ordu baino gehiago eta horren barruan %3,5ek 12 ordu baino gehiago.

Sexuei dagokienez, emakumeek 3 ordu baino gutxiago emango lituzkete, eta gizonak baino gehiago (ikus Eranskinen 51. Taula).

23 eta 29 urte arteko gehienei astero 6 ordu baino gehiago jardutea gustatuko litzaieke, nahiz eta boluntario ez diren baina izatea egingarri ikusten duten talde hori hain ugaria ez izan. 23 eta 29 urte artean nahi izaten dira, bakarrik, 6 ordu baino gehiago eskaini.

Orokorrean, astero 6 ordu baino gehiago emateko prest egongo liratekeela baieztatzen duten pertsonen portzentajea %14,5 baino ez izateak izan daitezkeen boluntarioen aldetik konpromiso eskasa erakusten du.

32. Grafikoa. Boluntariorantz eskaintzeko prest egongo liratekeen orduak. Izan daitezkeen boluntarioak. % Horizontalak



3.4.4. Inplikazioa erakundearen lanetan

Jarduera zehatz batean eskua luzatzea (baiezko erantzunen %83), eta ondoren pertsonekin zuzeneko esku-hartzea (%83) izango lirateke izan daitezkeen boluntarioak egiteko prest egongo liratekeen lanak. Jarraian, animazio lanak (%70), dohaintzak egitea (%60), eta pertsoneri harrera egitea, eta informazioa eta aholkularitza ematea, dirua ematea eta "apur bat denetarik", hirurak erantzunen %56rekin.

Aukera gehienek erantzunen %50 ganditzen dute, horrek adierazten du pertsona bakoitzak aukeratutako jarduerak ugari izan direla. Lehenengo biak gehien erakartzen duten aukerak dira eta, beraz, gehien eskatzen direnak izango lirateke eta alde handiarekin, etorkizunean boluntario izan daitezkeen jarduerak. Kontuan izan behar da, jakina, gehienbat aldizkako jardueretan lagundu nahi izateak izan daitezkeen eta benetan oraindik zer egin nahi duten argi ez duten boluntario gehienetan konpromisoaren zehaztasun eza adieraziko luke. Horri lotuta, ez da ezta ere begien bistatik ezkutatu behar %56k hainbat gauza egingo lituzkeela, zehaztasunik gabe baita ere. Kontuan izanez gero kapitulu honetan ikusi dela konpromisoa egungo boluntarioek dutenarekin konparatuz askoz handiagoa ez litzatekeela izango, zehaztasun ez hori konpromiso kota handiak hartzeagatiko kezkarik eza bezala azaldu liteke, baina ekintzak dibertsifikatu nahiko zirela ere begien bistatik ezkutatu gabe.

Deigarria da baita ere gutxien erakartzen duten lanak (ikus Eranskinen 52. Taula) zeregin teknikoagoak izatea edo ezagutza handiagoak edo derrigorrezko inplikazio maila handiagoa eskatzen dutenak izatea (koordinazio-zuzendaritza lanak, instituzioen arteko harremanak, aholkularitza profesionala).

Gizonak jarduera zehatzetan laguntzeko joera handiagoa izaten dute, emakumeak, aldiz, zuzeneko esku-hartzearen alde egiten dute. 30 urte baino gazteagoak direnek zuzeneko esku-hartzearen eta animazio lanen alde egiten dute adin nagusiagoek baino gehiago.

Izan daitezkeen Bizkaiko boluntarioen etorkizuneko arduraldi eta egonkortasun eta inplikazio mailari buruzko ondorio gisa baieztatu daitezke astegunetan beteko zen eta nagusiki noizbehinkakoa den konpromisoa gustatuko litzaiekeela. Lan horiei oso ordu gutxi eskaintzea aukeratzeko da eta ko-



Izan daitezkeen boluntarioak

puru garrantzitsu batek ez du zehazten burutu nahi duen lan zehatz bat, nahiz eta talde horrentzat oso garrantzi handikoa izan baita ere zuzeneko esku-hartzea pertsonekin eta laguntza lanak.

Esan liteke, lortutako emaitzetan oinarrituta, boluntarioen inplikazioak Bizkaian, pertsona horiek etorkizunekoak izan daitezkeen (balizkoa) boluntariotzat hartuz gero, gutxitzeko joera har zezakeela. Kontuan izanik boluntarioak

ez diren %9rentzat bakarrik izango litzatekeela egingarria boluntario izatera iristea, benetako gehikuntza ez litzateke beraz oso altua izango eta ez luke Bizkaiko boluntarioen ezaugarrien aldaketan modu erabakigarrian eragingo. Arrazoi hori dela eta, Bizkaiko boluntarioen inplikazioaren eta ezaugarrien bilakaera batez ere negatiboak diren adierazleak dituen eta zalantzagarría izan daiteke.



IV. kapitulua

**Galdutako, egungo
eta izan daitezkeen
boluntarioren arteko
konparazioa**



Jarraian ematen diren datuak egungo, galdutako eta izan daitezkeen boluntarioen arteko konparazioari dagozkie, aurreko kapituluetan azaldutako datuetan oinarrituta.


4.1. ARRAZOIAK

Orokorrean ez dago hiru boluntario moten artean ezberdintasun edo bariazio esanguratsurik. Horregatik, ondoriozta daiteke boluntariatzen hastea eragiten duten arrazoietan ez dela egongo aldaketa handirik.

Ezin daiteke pisua galtzen duten edo argi eta garbi onarpena irabazten duten arrazoiei buruz hitz egin, izan ere, alderatutako talde horiek lehenagoko, egungo eta etorkizuneko boluntariatzat hartuta, joerak oso okerrak eta irregularrak dira.

Kasu guztietan hoberen baloratzen diren hiru arrazoiak berberak dira: besteei laguntzearen satisfazioa, satisfazio pertsonala, eta ekintzaren balio soziala. Hiru arrazoi horietan oinarritu dira nagusiki Bizkaiko boluntarioen bultzagarriak eta etorkizunean hala gertatuko dela dirudi.

33. Grafikoa. Borondatezko ekintzaren arrazoiaren bilakaera.
Batez besteko balorazioak %etan






4.2. ERAKUNDEA AUKERATZEKO FAKTOREAK

Jarduerarekiko interesa da iraganeko eta gaur egungo boluntarioentzako faktore erabakigarriena, baita izan daitezkeen boluntarioentzat ere, oraingoan etorkizunean boluntario izatea aukera bezala ikusten zuten pertsonak kontuan hartuz. Galdutako eta egungo boluntarioek lehenesten dituzten faktoreen artean ez dago ia ezberdintasunik, egungo boluntarioentzat garrantzi handiago du atzean dagoen erakundea ezagutzeak.

Izan daitezkeen boluntarioek ere ez dute beste biekiko ezberdintasun handirik, ordutegiari ematen zaion garrantzia izan ezik; horri garrantzi handiagoa ematen diote boluntario ez diren baina izateko interesa duten pertsonak. Lehenago ikusi den bezala, horrelako datuek antolaketa faktore edo elementuetara (ordutegia, hurbiltasuna, eta abar) jotzeko joera dierazten dute, borondatezko lana egiten hasteko erabakian modu erabakigarrian eragin dezaketen elementuak bezala.

34. Grafikoa. Faktoreen eraginaren bilakaera



4.3. ESKU HARTZEKO ESPARRUAK ETA TALDEAK

Jarraian gizarte esparruei eta boluntarioen esku-hartzeari loturiko datuak aurkeztuko ditugu.

4.3.1. Gizarte esparruak

Lehenengo eta behin adierazi behar da gizarte esparru ezberdinetan boluntarioen esku-hartzearen bilakaera aztertzeke aurkeztu di-

tugun datu guztiak gaur egun eta iraganean boluntarioek emandako askotariko erantzunei dagozkiela; izan daitezkeen boluntarioei, aldiz, garrantzia hurrenkeratzat hartuta gehienez hiru erantzun adierazteko eskatzen zitzairen (horiek kontuan hartzeko azkeneko boluntario horien portzentajeak haztatuta agertzen dira).

Datuen arteko konparazioa, beraz, ez da kapitulu honetako beste puntu batzuetan bezala hain argia garrantziari dagokionez, baina neu-




rri berean erabilgarria da Bizkaiko boluntarioak denboran eta beren etorkizunean jardun diren esparru ezberdinen onarpena zelan aldatu den aztertzeke.

Ez da egon gehiegizko aldaketarik galdutako boluntarioak egungo boluntarioekin alderatuta, soilik egungo boluntarioek kultura eta aisialdia / euskara gehien aukeratu dute lehenengo esparru gisa jarriz eta kirola eta aisialdia baztertuz, esparru erlijiosoak garrantzian galera izan du eta ingurumenak igoera txikia. Hori dela eta, Bizkaiko boluntarioen egungo lehenespene hurrenkeran nolabaiteko aldaketa dago, baina ez da garrantzitsua.

Aldiz, izan daitezkeen boluntarioen eta beste bi boluntario moten artean ezberdintasun handiagoa dago. Garapen lankidetzaz eta hirugarren munduari emandako laguntza bigarren esparru bihurtzen da, aurreko bi boluntario motetan laugarren izanik; aldiz, kirola eta aisialdia kulturaren ordez onarpen handiena duen esparrua izatera pasatzen da, bere eragin zehatza zertxobait galduz.

Daturik esanguratsuen izan daitezkeen boluntarioentzat eralijioarekin loturikoak duen erakargarritasun oso urria da, galdutako boluntarioetan hirugarren esparrua eta egungoetan bosgarrena izanik. Baliteke esku hartzeko esparru horrek etorkizunean boluntarioen eragin zehatza murriztea.

35. Grafikoa. Borondatezko ekintzarako esparruen bilakaera (%)




4.3.2. Esparru geografikoak

Aztertu ditugun hiru boluntario motetan esparru geografiko gisa tokikoa ez gaintzeko joera berbera da. Auzoko esparruak igotzeko joera du,

estatukoa berriz, argi eta garbi atzera doala dirudi. Autonomia Erkidegoko esparruak ere izan daitezkeen boluntarioentzat erakargarritasunik ez duela dirudi. Bizkaiko boluntarioak, beraz, tokikoak eta Bizkaitik kanpo ez jarduteko joera izatera bihurtzen ari direla dirudi.



36. Grafikoa. Boluntarioen esparru geografikoen bilakaera (%)



4.3.3. Taldeak

Aurreko kapitulueta ikusi dugun bezala, orokorrean gizarte osoa (talde bat ere ez bereziki) eta ume eta gazteak taldeek egungo eta galdutako boluntarioek lehenetsitako jardueren erdia baino gehiago hartzen zuten. Adinekoak eta hirugarren adina taldea, kasu bietan hirugarren taldea, lehenesteko hurrenkera ia berbera izanik, izan daitezkeen boluntarioentzat proportzioa kontuan hartuz badirudi erakargarriagoa dela, nahiz eta beste behin lehenetasunen hurrenkera galdutako eta gaur egungo boluntarioen ia berbera izan.

Beraz, ez dago Bizkaiko boluntarioen egoeraren forman aldaketa garrantzitsuak eman-go direla adierazten duen seinalerik.

Hala ere, egungo boluntarioekin konparatuz izan daitezkeen lehenetasunei dagokienez igoera eta jaitsiera batzuk aipatzearen, adierazi behar da bereziki talde batekin ere ez lan egiteak eragin zehatza galtzen duela, eta emakumeen taldea nagusitu egiten dela, eta neurri txikiagoan ezintasunak dituzten pertsonak. Hori kontuan izan behar da etorkizunari begira boluntario erakundeen jarduerak bideratzeko biztanleentzako erakargarriagoak diren borondatezko jarduerak eskaintze aldera. Aldaketa

horiek ardura berriak dituen gizarte aldakorraren emaitza dira: hirugarren munduaren egoera (nazioarteko elkartasuna), adineko pertsonen egoera edo emakumeen egoera gure gizartean.


4.4. KONPROMISOA

4.4.1. Konpromisoa

Egungo boluntarioek lehenagoko pertsona boluntarioena baino ohikoagoa den konpromisoa dute, baina izan daitezkeen boluntarioek batez ere nahiago dute konpromiso puntuala.

Hori dela eta, erakundearekin zenbat eta konpromiso handiagoa izan, orduan eta egonkortasun indize handiagoa, beraz, boluntarioak diren pertsonetan konpromiso hori zaindu behar litzateke, baita beren gogokoak diren lanak eman ere.

37. Grafikoa. Boluntario gisa norbere burua definitzeko moduaren bilakaera (%)



4.4.2. Lehenetsitako arduraldi egunak

Lehenago ikusi den bezala, egungo eta galdutako boluntarioek asteko edozein egun eskaintzen zioten borondatezko jarduerari, aste-guna zein asteburua izatea bereizi gabe. Bi kasuetan, pertsonen gehiengoak asteburuak barne hartzen zituzten borondatezko jarduerak burutze-ko denbora gisa (aste barruko egunak barne edo




ez). Iraganeko eta egungo boluntarioen artean arduraldi egunetan ez dago ia ezberdintasunik.

Izan daitezkeen boluntarioen artean, aldiz, oso jende gutxi egungo litzateke asteburuetan boluntario gisa lan egitera, nahiz eta zati txiki bat oporretan jarduteko prest egon, egungo boluntarioen artean gertatzen ez dena. Hala eta guztiz ere, ikusitako joerak bereizi gabe asteen zehar lan egiteari utziko litzaiokeela adieraziko luke eta beraz, lana astegunetan bateratuko litzateke.

4.4.3. Borondatezko lanei eskainitako orduak

Egungo boluntarioen artean, eskinitako orduak dagokienez, astero 1 eta 3 ordu ematen dituzten pertsonen portzentajea handitzen da; berriz, ordu gehiago ematen dituzten pertsonen portzentajea jeitsi egiten da. Horrek denbora gehiago ematen zuten pertsona boluntarioen galera adierazten du eta beraz, arduraldia jeistea.

38. Grafikoa. Borondatezko jarduerari eskainitako orduen bilakaera (%)



Boluntario izateko interesa duten pertsonak, gehiago izatera iritsiz gero oraindik denbora gutxiago emango lukete, astero 3 orduak gaindituko ez lituzketen %63rekin.

4.4.4. Inplikazioa erakundearen lanetan

Zehaztugabeko lanak dira galdutako boluntarioek zein egungoek eta izan daitezkeek gehien nabarmendutakoak. Zuzeneko esku-hartzeak ere onarpen berbera du pertsona boluntarioen belaunaldi belaunaldi, eta gainera eragina handituz doa.

Dohaintzak egitea gehien burutzen den hirugarren zeregina izatea, galdutako boluntarioen artean laugarrena zena eta gaur egun baino eragin gutxiagorekin, aintzat hartzekoa da hain aktiboak ez diren jarduera horiek burutzea Bizkaiko boluntarioen artean eragina izaten ari dela, gehien gauzatzen den jardueretako bat izateraino. Halaber, egungo boluntarioen proportzio handiago bat koordinazio lanak, kanpo harremanak, sentsibilizazio lanak egiten, boluntario berriak trebatzen edo aholkularitza profesionala ematen jarduten da.

Izan daitezkeen boluntarioek orokorrean egungo boluntarioek baino portzentaje handiagoak dituzte jarduera bakoitzean; horrek denetarik egin nahi izateko borondate handiagoa adierazten du, egungo joerari dagokionez lehen-tasunen hurrenkera funtsean aldatu gabe.



V. kapitulua

2003-2008
konparazioa



2008ko Bizkaiko boluntario taldearen errealitatea ikusi ondoren, orain datu horiek 2004ko Bizkaiko boluntariotzari buruzko azterlaneko (2003ko datuei dagokiena) datuekin alderatuko ditugu, azken bost urteetan Bizkaiko boluntarioei buruzko alderdi horien bilakaera ezagutzeko eta eman ahal izan diren aldaketak antzemateko helburuarekin.

5.1. EGUNGO BOLUNTARIOEN KONPARAZIOA

Profila:

- 2003an zein 2008an, Bizkaian antzemandako boluntarioak 18 urtetik gorako Bizkaiko biztanleen ia %11 dira.
- 2003an berriz, 10 boluntariotatik ia 7 emakumeak ziren; 2008an gizonen taldearen alde zertxobait egiten duen oreka dago (%51 dira gizonak).
- Esan liteke boluntarioak zahartu egin direla nahiko modu nabarmenean azken bost urte hauetan, izan ere, 2008an 60 baino nagusiagoak ia heren bat ziren, baina 2003an %15.
- Nahiz eta bi uneetan boluntario gehienak pertsona aktiboak izan, erretiroa hartutakoen, pentsiodunen edo ezintasunak dituzten pertsonen portzentajea %6tik %20ra igo da, boluntarioen adinaren igotzearekin bat etorritik. Halaber, ikasleek beren eragin zehatza modu esanguratsuan murriztu dela ikusi dute.
- Kokapenari dagokionez, 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan bizitzen jarraitzen dute eta Bilboren eragina duen gunean; horrek baieztatzen du Bizkaiko boluntariotza oraindik lehenespenez hiritarra den fenomeno dela.
- Azken azterlan honetan, gizarte arloarekin loturiko lana duten pertsonen nahiko portzentaje altua antzeman da: %26,5

2003ko %3ren parean. Halaber, azken azterlanaren arabera, %74 dira erakunderen baten kide direnak, aurreko azterlanean erakunderen baten kide ziren boluntarioen %28rekin konparatuz; baina adierazi behar da 2008an edozein motatako erakundetako kide izateari buruz galdetu zaiela, 2003an aldiz, gizarte arloarekin loturiko erakundeen inguruan galdetzen zen, beraz, bi datu horiek ezin daitezke zuzenean alderatu.

Lehenengo harremana boluntariotzarekin:

- Boluntariotzan hasteko adina antzekoa da (30 urte 2003an eta 32 2008an), eta boluntario izatera iristeko arrazoi nagusiak ia berberak dira (satisfazio pertsonala, besteei laguntzearen satisfazioa eta balio soziala), eragin txikiagoko arrazoiak ere (bakardadetik ihes egitea, erlijio arrazoiak eta politikarekiko interesa) bat datozen moduan. Ezberdintasun bakarra da ekintzaren balio soziala, gaur egun, arrazoi nagusia dela, baina duela 5 urte, lehenengo arrazoiak satisfazio pertsonala zen, 2008an bigarren lekua hartuz.
- Erakundearen berri jakiteko modu nagusia ahoz ahozkoak izaten jarraitzen du; ostera, boluntario entitateari buruzko informazioa parrokiaren edo elizaren bidez ematea azken bost urteetan nabari jeitsi da eta jadanik ez da erakundea ezagutzeko bigarren modua, 2003an izan zen moduan, orain bere lekuan norbere kabuz informatzea kokatzen da. Jarduerak norberarentzat duen interesa da bi uneetan erakundea aukeratzeko faktore nagusia.

Lehenespenezko intereseko esparruak eta taldeak

- Lehenesten diren esku hartzeko gizarte esparruek ez dute ia aldaketarik izan, izan ere, kultura eta aisialdia eta kiro-



la eta aisialdia dira oraindik lehenesten diren esparruak, azken urteetan indar gehiagorekin.

- Esparru geografikoan oinarritzko ezberdintasunak antzematen dira; aurreko azterlanean Bizkaiko lurralde esparrua zen nagusia pertsonen %34rekin, gaur egun goan berriz, tokiko esparrua da nagusia (%37,5). Esan liteke Bizkaiko boluntarioak tokikoago bihurtu direla eta udalerrria edo auzoa bezalako espazio txikietan jarduteko joera handiagoa dutela; ostera, duela bost urte, ia erdiak erkidegoko esparruetan jarduten ziren. Gaur egun, azken portzentaje hori %23 da.
- 2008an orokorrean gizartearekin lan egitea lehenesten da; lehenago, berriz, interes nagusia zuen taldea ume eta gazteak zen.

Konpromiso maila. Arduraldia, egonkortasuna eta inplikazioa

- Konpromiso mailak nahiko garrantzitsua izaten jarraitzen du, baita azken azterlan honetan aurrekoari dagokionez ohizko konpromisoa duten pertsonen portzentajea zertxobait gaindituz ere. Asteroko aldizkakotasuna lehenesten da oraindik eta borondatezko lana astegunetan nahiz asteburuetan eskeiniz. Hala ere, orain ordu gutxiago ematea lehenesten da.
- Espero zen bezala, gutxi berritutako boluntarioen egoeraren aurrean, beteranoak urteetan egindako lan boluntarioetan jardunez, ugaritu egin dira, izan ere, 10 urte baino gehiago daramatzaten pertsonak %29tik %45,5 izatera pasatu dira.
- Gaur egun boluntarioen zati handi batek denborarekin beren konpromisoa handitu dutela baieztatzen dute; aurreko azterlanean ostera, portzentajerik altuenak adierazten zuen beren konpromisoa berdin mantendu zela. Hau da, azken urteetan, orokorrean inplikazioa (boluntarioek ikusten duten moduan) handitu egin da.
- Erakundearen lanetan izandako inplikazioari dagokionez, 2008ko boluntarioek adierazten dituzten baieztatu erantzunen portzentaje handien arabera, ikus daiteke pertsona baten egindako lanen barietatea 2003an baino handiagoa dela. Urte hartan esku-hartze zuzena zen gehienek

bultzatutako lana; 2008ko azterlanean jardura zehatz batean laguntzea da jende gehienak gauzatutako jardura.

Esperientziaren balorazioa

- Borondatezko ekintzaren balorazioak bi azterlanetan antzekoak dira. Nahiz eta 2008an batez besteko balorazioa zertxobait baxuagoa izan (8,02 2003ko 8,23rekin alderatuz), nabarmena izaten jarraitzen du.

5.2. IZAN DAITEZKEEN BOLUNTARIOEKIKO KONPARAZIOA

Boluntariotzan jarduteko profila eta interesa

- Inoiz boluntario izan ez diren pertsonen portzentajeak bi azterlanetan antzekoak dira, bi kasuetan %70 inguru izanik (%75,5 2003an eta %69 2008an). Alderantziz, duela 5 urte boluntario ez ziren pertsonen %46k boluntariotzan jarduteko interesa zuten, gaur egun datu hori %50era igotzen da. Zifren aldaketa horrek 16 urte baino nagusiagoak diren Bizkaiko biztanleen portzentajea 2003ko Azterlaneko %11,5etik 2008ko Azterlaneko %34,5era igo izana eragin du, beraz, boluntario izateko nahia nabarmen igo dela ikus dezakegu.
- Urte batean zein bestean, boluntario izateko interesa duten pertsonen gehiengoak emakumeak dira. 2008ko Bizkaiko boluntarioen datuak ikusita, ezin daiteke esan bost urte lehenago antzemandako joera hura bete denik, beraz, ezin daiteke ziurtatu 2008an izan daitezkeen boluntarioen artean joera horrek etorkizuneko boluntarioen sexuen araberako banaketari dagokionez aldaketa eragingo duenik.
- 2008an, boluntario izateko interesa zuten pertsonak 2003an interesa zuten pertsonak baino zertxobait nagusiagoak ziren. Boluntariotza azken urteetan zahartu izan bada, baliteke, datu horiek oinarri hartuta, gehiago zahartzea.

Boluntariotzan jarduteko aukera

- Boluntario ez diren baina boluntario izatea aukera gisa ikusten duten pertsonen proportzioa berbera da bi azterlanetan:



%9. 16 eta 39 urte arteko pertsonak dira aukera handiena adierazten dutenak.

Lehenengo harremana boluntariotzarekin

- Beste ardura batzuk izategatik eratorritako denborarik eza izan daitezkeen boluntarioen artean boluntariotzan ez jarduteko arrazoi nagusia da, bai 2003an eta baita 2008an ere.
- Boluntariotzan jarduteko lehenesten diren bultzagarrietan ez da ia aldaketarik egon, izan ere, besteei laguntzearen satisfazioa, satisfazio pertsonala eta ekintzaren balio soziala bultzagarri nagusiak izaten jarraitzen dute, hurrenkerari dagokionez aldaketaren batekin. Hala ere, gaur egun 2003an baino eragin handiko faktore gehiago anzematen dira.
- Erakundea aukeratzeko faktore erabakigarria, bi urteetan, jarduerarekiko interesa da.

Interesekoak izan daitezkeen esparruak eta taldeak

- Intereseko gizarte esparruen artean ezberdintasun garrantzitsuak daude: 2003an bazterketa soziala, garapen lankidetzeta eta minusbaliotasunak ziren, hurrenkera horretan, jarduteko gogokoenak ziren esparruak; 2008an ostera, kirola eta aisialdia dira, garapen lankidetzeta eta kultura eta aisialdia / euskara ziren, hurrenez hurren.
- Jarduteko lehenesten den esparru geografikoari dagokionez, 2003an izan zitezkeen boluntarioen %66ren aukera gustukoena Bizkaia eta EAE ziren, 2008an berriz, %45ek tokiko-eskualdeko esparrua aukeratu zuten eta %8 bakarrik jardungo ziren Bizkaia baino esparru handiago batean. Hau da, esparru txikienetan aritzeko nahia (tokia, auzoa) izugarri hazi da, alderantziz, lurraldea baino esparru handiagoetarako nahia txikituz.

- Ume eta gazteak taldea da izan daitezkeen boluntarioentzat interes nagusia duen jarduteko taldea. Bost urte horietan hirugarren adinekoen eta ezintasun eta minusbaliotasunak dituzten taldeekiko interesa handitu egin da, 2008an hurrenez hurren bigarren eta hirugarren tokian jarritz, eta emakumea eta gizartea orokorrean taldeekiko interesa txikitu da.

Arduraldia, egonkortasuna eta etorkizuneko inplikazioa

- Aldizkako jardueretan inplikatzeta, 2003an izan zitezkeen boluntarioen erdia hartzen zuena, 2008an portzentaje zertxobait handiagoa erakartzen du, %56. Halaber, orduetako inplikazioa ere txikitzen ari dela dirudi, izan ere, lehen gehienek astero 3 eta 6 ordu ematea lehenesten bazuten, gaur egun 3 ordu baino gutxiago emateko aukeratuko lukete.
- Lehenesten diren arduraldi egunei dagokionez, asteburuetan bakarrik inplikatuko lirartekeen pertsonen portzentajea zertxobait handitzen da (%58tik %66ra), eta asteburuetan eta oporretan lan egiteko nahia modu zorrotzean jeisten da: %38tik %19ra.
- Erakundearen lanetan inplikatzeari dagokionez ez da ezberdintasun garrantzitsurik antzematen. 2003an, eskuhartze zuzena pertsonekin zen gehien aipatzen zen zeregina eta bigarren, jarduera konkreturen batean laguntzea; 2008an aldiz, horri buelta ematen zaio. Gainerako lanek beren lehentasun mailak mantentzen dituzten gutxi gorabehera; hala ere, kontuan izan behar da egungo azterlanean pertsona bakoitzeko bost urte lehenago baino zeregin kopuru handiagoa aipatu direla eta, beraz, lehenengo biek ez dute urte hartan bezala besteengandik hainbeste bereizten.



VI. kapitulua

Ondorioak

1. KAPITULUA. EGUNGO BOLUNTARIOAK

- 18 urte baino nagusiagoak diren Bizkaiko biztanleen %11 (107.400 pertsona gutxi gorabehera) boluntarioak dira.
- Bizkaiko boluntarioen profila gizona edo emakumea den pertsona da, 40 urte baino nagusiagoa, goi-mailako ikasketak dituen, besteren konturako soldatapekoa, 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrian bizi dena eta gizarte arloarekin loturarik ez duen trebakuntza edo lana duena.
- Boluntariorantz sartzeko batez besteko adina 32 urte dira, nahiz eta lanaren arabera ezberdintasunak egon, izan ere, lanik ez dutenak edo ikasleak direnak boluntariorantz nerabezaroan hasi zirenak dira, eta etxeko lanetan jarduten diren edo erretiroa hartutako pertsonak, 40 urte baino nagusiagoak.
- Balio soziala eta satisfazio pertsonala dira Bizkaiko biztanleek boluntario izatea aukeratzen dutenean pisu handiena duten arrazoiak. Ideologikoak izateko joera duten edo boluntarioen azken helburuarekin lotura zuzenik ez duten arrazoiek oso garrantzi gutxi dute.
- Bizkaian gaur egun boluntarioak diren pertsonak beren erakundea "ahoz aho" ezagutu dute gehienbat (lagunen edo senitartekoen bitartez), erakundea aukeratzeko orduan erabakigarriena den faktore gisa jarduerarekiko interesa izanik.
- Boluntarioen esku-hartzeko esparru bi dira onarpen garrantzitsua dutenak: Kultura eta aisialdia / euskara eta kirola eta aisialdia. Gainerako esparruek ere adierazgarritasun garrantzitsua dute, %20ekin gutxi gorabehera.
- Tokiko edo eskualdeko esparrua da boluntario Bizkaitarrek lehenesten duten esparru geografikoa, eta horien ondoren auzokoa; aldiz, Bizkaiko lurraldea baino handiagoak diren esparruek gutxiengoan dagoen portzentajea bakarrik biltzen dute.
- Lan gehien eskaintzen zaion taldea gizartea orokorrean da. Onarpena duten beste talde batzuk, nahiz eta talde orokorrari dagokionez alde izan, ume eta gazteak eta adinekoak dira. Gainerako taldeek oso pisu gutxi dute.
- Bizkaiko boluntarioen konpromiso maila, erregulartasuna eta arduraldia bezala ulertuta, handia da, maiztasunez jardunez, astero, eta zehazki astebarruko egunetan, nahiz eta %45ek astero 3 ordu baino gehiago ez eman. Astero 3 ordu baino gehiago ematen dituztenak 23 eta 29 urte artean izaten dituzte.
- Bizkaiko boluntario gehienek 5 urte baino gehiago daramatzate boluntario lanetan.
- Egungo boluntarioen %25,5 azken hiru urteetan hasi da borondatezko lana egiten. Talde horretan oso jende gazte gutxi dago eta 40 urte baino zaharragoak diren pertsonak dira gehiengoa; horrek azken urteetan Bizkaiko boluntariorantz zahartu du.
- Bizkaiko boluntarioen inplikazio maila ez da denborarekin gutxitzen, kasu gehienetan handitu egiten da. Inplikazioa adinarekin egonkortu edo handitu egiten da.
- Bizkaiko boluntarioen zeregin ohikoenak jarduera konkreturen batean laguntzea (aldizka jardutea, unean uneko premien arabera) eta pertsonekin esku-hartze zuzena izatea dira, beste jarduera batzuekiko ezberdintasun dezenterekin. Adin guztietan laguntza konkretua da gehiengoa, talderik gazteenean izan ezik (16-22), adin horretan animazio lanak hautatzen dira.



- Bizkaiko boluntarioen satisfazio maila oso altua da: batez beste 8,02 10etik. Adinaren edo sexuaren arabera ez dago ezberdintasun handirik; emakumeek (8,08) eta 40-49 urte arteko taldeak (8,37) hurrenez hurren sexuari eta adinari dagokienez satisfazio maila altuena dute.

2. KAPITULUA. GALDUTAKO BOLUNTARIOAK

Galdutako boluntarioen datuetatik ateratzen den ondorio nagusia da aldaketa txikiak bakarrik eman direla boluntarioen egungo egoeran lehenagoko egoerari dagokionez.

- Aztertze helburu izan diren biztanleen %19,8 (193.500 pertsona inguru) inoiz boluntario izan dira.
- Galdutako boluntarioen profila, egungo boluntarioen berdina da: gizona edo emakumea, 40 urte baino nagusiagoa, goi mailako ikasketak, besteren konturako soldatapekoa, ertaina edo handia den udalerrian bizi dena (5.000 biztanle baino gehiagokoa), eta gizarte arloarekin loturiko trebakuntza edo lanik gabe.
- Denborarik eza, boluntario jardueren eta lan edo ikasketen denboraren arteko bateraezintasuna zein familiako betebeharrak direla medio, boluntariotza uzteko arrazoi nagusia da.
- Galdutako boluntarioen gehiengoak ez du lehenagoko erakundearekin ondorengo harremanik izan; horrek adierazten du boluntariotzarekin ez ulertzea ezaugarri orokorra dela jarduera uztean.
- Galdutako boluntarioen gehiengoak 3 urte baino gehiago zeramatzan boluntario lanetan, nahiz eta portzentaje txiki bat baino ez izan bost urte baino gehiago zeramatzatenak. 60 urte baino nagusiagoak ziren pertsonak bakarrik izan ziren boluntariotzako 5 urteko muga gainditzea lortu zutenak.
- Besteei laguntzearen satisfazioa, satisfazio pertsonala eta balio soziala ziren boluntario lanetan hasteko arrazoi nagusiak. Jarduerarekiko interesa, beste alde batetik, beste behin erakundea aukeratzeko faktore erabakigarriena izan zen.
- Gizarte esparru gogokoena kirola eta aisialdia izan zen, eta ondoren kultura eta aisialdia / euskara eta erlijioa.
- Tokiko eta eskualdeko esparrua da galdutako boluntarioek borondatezko lana egiteko lehenesten duten esparrua. Bizkaia da, alde handiarekin, bigarren esparru geografikoa; aldiz, Bizkaia gainditzen zutenek, egungo boluntarioen kasuan bezala, oso talde urria osatzen zuten.
- Gizartea orokorrean eta ume eta gazteen taldeak izan ziren baita ere boluntario lana eskaintzeko lehenesten ziren taldeak.
- Konpromiso maila, nahiz eta lehenespeenez aldizka jardun, altua zela ere esan daiteke, izan ere, astero aritzen ziren eta hainbat alditan oporretan eta asteburuetan; gainera, batez beste astero 3 eta 6 ordu artean ematen zituzten.
- Galdutako boluntarioen satisfazio maila 10etik 7,93 da, nota altua, nahiz eta egungo boluntarioena baino baxuagoa izan (8,02). Beraz, ezin daiteke esan borondatezko jarduera uzteko arrazoi nagusia behar bezalakoa izan ez den esperientziarekin zuzenean loturikoa dela.

3. KAPITULUA. IZAN DAITEZKEEN BOLUNTARIOAK

- 16 urte baino nagusiagoak diren Bizkaiko biztanleen %69 (698.500 pertsona inguru) ez dira inoiz boluntario izan. Boluntarioak ez diren guztien artean %50ek boluntario izateko interesa dutela baieztatzen dute eta %19k (192.340) pentsatu beharko luketela.
- Bizkaian borondatezko lana egiteko interesa duen emakumea da, 40 urte baino gehiago ditu, oinarrizko ikasketak ditu, besteren konturako langilea da, gizarte arloarekin loturik ez dagoen lana edo trebakuntza du eta, garrantzi handiagoa duen alderdia, boluntario izatera iristek aukera gutxi dituela uste du.
- Pertsona horiek boluntariotzan ez aritzeko ematen duten arrazoi nagusia denborarik eza da; aldiz, garrantziaren hurrenkeran

ondoren datozen arrazoiak (aisialdian beste jarduera batzuk egiteko lehentasuna, erakundearen atzean nor dagoen ez jakitea, inoiz horretan pentsatu ez izana), dezente eragin gutxiago dute.

- Arrazoi ugari dira borondatezko lana egiteko interesa duten pertsonen boluntario izatera iristea eragingo lieketenak: nabarmenenak besteei laguntzearen satisfazioa, ekintzaren balio soziaa, satisfazio pertsonala eta nire ingurua hobetzeko lana egitea dira.
- Interesa duten pertsonen borondatezko lana kirola eta aisialdia, garapen lankidetzatza eta kultura eta aisialdia esparruetan egiteko aukeratuko lukete. Erljioak eta ingurumenak egungo boluntarioen artean baino askoz onarpen txikiagoa dute.
- Ume eta gazteak eta hirugarren adina dira borondatezko lana egiteko orduan lehentasuneko intereseko taldeak.
- Interes gehiago edo gutxiago izatea albo batera utzita, inoiz boluntario izan ez diren pertsonen (Bizkaiko biztanle guztietatik 62.865 eta %18 interesa duten pertsonetatik) %9k bakarrik ikusten dute boluntario izatera iristeko aukera, eta talde gazteena da (16-22 urte) boluntariorian aritzeko aukera handiena adierazten duena. Izan daitezkeen boluntarioen gehiengoak emakumeak dira (%62) eta %51k 40 urte edo gehiago dituzte.
- Izan daitezkeen boluntarioetan, jarduerarekiko interesa izango litzateke boluntario erakunde bat aukeratzeko orduan eragin handiena izan zezakeen faktorea, nahiz eta eragin dezaketen faktoreak asko izan.
- Boluntario izatea aukera bezala ikusten duten pertsonen artean borondatezko lana egiteko esparru gogokoena udalerrikoa litzateke, eta ondoren auzokoa, adierazitako lehentasunetako batean bezala, beren ingurua hobetzeko lanean inplikatzeko.
- Izan daitezkeen boluntarioek konpromiso maila baxua dute, egungo boluntarioekin alderatuz: %56k nahiago dute batez ere aldizka eta noizbehinka konprometitu, eta 50 urte baino nagusiagoek gainerakoek

baino inplikazio maila altuagoa dute. Astegunetan ordu gutxitan (gehienek astean 3 baino gutxiago) laguntzeko prest egoten da.

- Pertsonen kopuru handi batek ez du erakunde batean garatzeko inolako zeregin zehatzik adierazten, izan ere, edozein jardueratan lagunduko lukete, nahiz eta esku-hartze zuzena pertsonekin eta laguntza lanak gehien aipatzen den jarduera zehatza.
- Izan daitezkeen boluntarioek etorkizunean Bizkaiko boluntarioen arduraldi profila are gehiago txikitzea eragin zezakeen inplikazio eta konpromiso maila ertaina erakusten dute.

4. KAPITULUA. GALDUTAKO, EGUNGO ETA IZAN DAITEZKEEN BOLUNTARIOEN ARTEKO KONPARAZIOA

- Egungo eta galdutako boluntarioen artean ez dago ezberdintasun handirik: boluntario izatera iristeko arrazoiak, erakundea aukeratzeko faktoreak, intereseko taldeak, lehenesten diren arduraldi egunak eta inplikazioa erakundearen lanetan bi boluntario motetan oso antzekoak dira.
- Egungo boluntarioetan antzeman diren aldaketak galdutako boluntarioei dagozkien honakoak dira:
 - Kultura eta aisialdia / euskarak igoera txiki bat izan du eta orain Bizkaiko esku-hartze esparru garrantzitsuena da. Ingurumenak, alderantziz, nolabaiteko igoera izan du eta gaur egun Bizkaiko hirugarren esku-hartze esparru gisa dago, erlijioa dela eta jeitsiera txikiari esker. Kirola eta aisialdia lehenengoa izatetik bigarren esparrua izatera pasa da;
 - auzoko esparruak garrantzi handiagoa du;
 - boluntarioen konpromisoa galdutako boluntarioena baino handiagoa da;
 - orduetan ematen den arduraldia jeitsi egin da.
- Izan daitezkeen boluntarioek ere ez dituzte beste bi boluntarioei dagozkien



nez ezberdintasun gehiegi. Nahiz eta ez jakin zein neurritan bihur daitezkeen izan daitezkeen boluntarioak boluntario erreal, Bizkaiko boluntarioen etorkizunaren agertokia ondoren datorren moduan zehatz daitezke, eta horiek boluntario erakundeek kontuan hartu beharrekoak izango dira:

- Kirola eta aisialdia eta garapen lankidetzak garrantzitsuagoak dira, hurrenez hurren lehenengo eta bigarren lekuak hartuz. Beraz kultura eta aisialdia /euskara esparruak bezala boluntario ez diren pertsonak lehenesten dituzten jarduteko esparruak izaten jarraitzen dute eta aurreikusten da ez dutela garrantzia galduko. Beste alde batetik, erlijioa eta gizarte bazterketa soziala esparruek dezente interes gutxiago dute egungo boluntarioei dagokionez. Esparru horiek eragin zehatza ez galtzea saihesteko, egungo iragartzeko ahalmena eta jarduerak berriz planteatu behar lirateke langileen gutxitzea saihesteko;
- Esku-hartzeko taldeak gehiago zehazten dira, eragin handiena ume eta gazteak

eta adinekoak eta hirugarren adina taldeek izanik; ez da ahaztu behar ezta ere, emakumeak eta ezintasunak dituzten pertsonen taldeek, ikusitakoaren arabera, beharbada nolabaiteko igoera izatea boluntariotzatik erantzun bat ematera behartzen duena.

- Bizkaia baino esparru geografiko handiagoek atzerakada are handiagoa izan dezakete nagusiki tokiko edo eskualdeko jarduerari mesede eginez. Estatuko, nazioarteko edo baita erkidegoko esparruak ere kalte larriak izan ditzakete;
- izan daitezkeen boluntario gehienek denborarik eza aipatzen zuten boluntariotzan jarduteko arrazoi gisa eta hori, borondatezko lana noizbehinkako jardueretan, ordu gutxitan zehar eta aste-buruak saihetsiz burutzeko duten lehenetasunean ikus daiteke; erakunde bat aukeratzeko orduan ere ordutegia bezalako faktoreei ematen diete garrantzia. Horregatik, Bizkaiko boluntarioen etorkizuneko bilakaera zalantzarria da garatuko litzatekeen konpromiso mailari dagokionez.



I. eranskina

Azterlanaren
fitxa teknikoa

1. METODOLOGIA

Azterlana egiteko metodologia kuantitativa erabili da, telefono bidezko galdera sortaren teknikaren bitartez eta Bizkaiko biztanleen lagin adierazgarri bati zuzenduta.

Bi galdera sorta diseinatu ziren, guztientzako galdera komunekin eta beste zehatzago batzuk biztanleen segmentu bakoitzarentzat.

- A galdera sorta. Bizitzako momenturen baten edo gaur egun boluntario diren pertsonen zuzendutakoa.
- B galdera sorta. Inoiz boluntario izan ez diren pertsonen zuzendurikoa.

2. LAGINA

Azterlanaren helburu diren pertsonak Bizkaiko Lurralde Historikoko 16 urte baino nagusiagoak diren biztanleak dira. 2006ko abenduaren 31an lehenago aipatutako biztanleentzat EUSTATetik jasotako datuetan oinarrituta kalkulatu zen lagina.

16 urtekoak eta nagusiagoak diren 1.012.354 biztanleetatik 1.000 kasuko lagina atera zen, beren geruza esanguratsuenetan oinarrituta jendearen banaketarekiko proportzioan banatuta: sexua, adin tarteak, udalerriko biztanleriaren tamaina eta banaketa geografiko proportzionala kasu kasuko lau aldeztaketetan Bizkaiko Foru Aldundiak proposaturiko muga geografikoan oinarrituta.

Biztanleentzako errore marjina %3 da gutxi gorabehera, emaitzen adierazgarritasuna eta fidagarritasuna %95eko konfiantza mailarekin bermatuz.

Inkestatu beharreko biztanleen aukeraketa ausaz burutu zen.

Erabiltzea erabaki den lagina afixazio proportzionalekoa da, geruza bakoitza laginean behar bezainbeste ordezkatzuz, baina horietako bakoitzaren adierazgarri izan gabe, eta beraz, Bizkaia osoarentzat orokorrean lortutako emaitzak orokortzeko baliozkoa izango da.

Azterlanean aztertutako eskualdeak honakoak izan ziren:

- Bilbo
- Ezkerraldea-Enkarterriak
- Nerbioi-Ibaizabal
- Busturia-Urbe

Biztanleriaren tamainari dagokion aldagaia bi itemetan multzokatu zen. Udalerrriak:

- 5.000 biztanle baino gutxiagokoak
- 5.000 biztanle baino gehiagokoak

Adin taldeak ondorengo bitarteen arabera zehaztu ziren:

- 16-22 urte
- 23-29 urte
- 30-39 urte
- 40-49 urte
- 50-59 urte
- 60 urte edo gehiago

Jarraian biztanleen eta laginen geruzatze ezberdinak ematen dira. Banaketa borondatez adin bitarteen arabera proportziorik kanpokoak da, adin gazteagoen bitarteak modu positiboan haztatze helburuarekin.

3. LAGINEN BANAKETA

Azkenean lortutako laginak biztanleria osoari dagozkionez portzentaje aldaketaren bat izan zuen azkenean aurreikusitakoa baino inkesta gehiago izanik.

BIZTANLERIA OSOA ETA ESKUALDE BAKOITZEKO LAGINA				
ESKUALDEA	16<BIZ	%	LAGINA	%
BILBO	314.892	31	313	31,2
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	263.826	26	261	26
NERBIOI-IBAIZABAL	186.631	18	177	17,6
BUSTURIA-URIBE	247.009	24	253	25,2
GUZTIRA	1.012.358	100	1.004	100



BIZTANLERIA GUZTIRA ETA ESKUALDE ETA BIZTANLERIAREN TAMAINA BAKOITZEKO LAGINA					
ESKUALDEA	UDALERRIAK	16<BIZ	%	LAGINA	%
BILBO	5.000 biztanle baino gutxiago (txikia)	0	0	0	0
	5.000 biztanle baino gehiago (handia)	314.892	100	313	100
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	5.000 biztanle baino gutxiago (txikia)	12.042	5	9	3,4
	5.000 biztanle baino gehiago (handia)	251.784	95	252	96,6
NERBIOI-IBAIZABAL	5.000 biztanle baino gutxiago (txikia)	38.147	20	35	19,8
	5.000 biztanle baino gehiago (handia)	148.484	80	142	80,2
BUSTURIA-URIBE	5.000 biztanle baino gutxiago (txikia)	47.685	19	48	19
	5.000 biztanle baino gehiago (handia)	199.324	81	205	81
GUZTIRA		1.012.358	100	1.004	

BIZTANLERIA GUZTIRA ETA ESKUALDE ETA SEXU BAKOITZEKO LAGINA					
ESKUALDEA	SEXUA	16<BIZ	%	LAGINA	%
BILBO	Gizona	147.166	47	147	47
	Emakumea	167.726	53	166	53
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	Gizona	127.696	48	127	48,7
	Emakumea	136.130	52	134	51,3
NERBIOI-IBAIZABAL	Gizona	92.067	49	93	52,5
	Emakumea	94.564	51	84	47,5
BUSTURIA-URIBE	Gizona	119.732	48	117	46,2
	Emakumea	127.277	52	136	53,8
GUZTIRA		1.012.358	100	1.004	

BIZTANLERIA GUZTIRA ETA ADIN BAKOITZEKO LAGINA				
ADINA	16<BIZ	%	LAGINA	%
16-22 urte	66.195	6,5	70	7
23-29 urte	98.750	9,8	95	9,5
30-39 urte	188.800	18,6	185	18,4
40-49 urte	185.253	18,3	182	18,1
50-59 urte	157.984	15,6	162	16,1
60 urte edo gehiago	315.376	31,2	310	30,9
GUZTIRA	1.012.358	100	1.004	100

5. EREMUKO LANAK

Galdera sortaren zirriborroa diseinatu ondoren, eta lantaldearekin adostu ondoren, telefono bidezko aurre test bat burutu zen (gaztelaniaz zein euskaraz) zoriz aukeratutako 40 pertsonari, aurretiaz ezarritako lagin irizpideen arabera.

Galdera sorta horiek antzeman zitezkeen okerrak zuzentzeko helburuarekin aztertu ziren. Erreduko test horren emaitzek behin behineko galdera sorta bi hizkuntzetan idazteko balio izan zuten.

Elkarrizketari bakoitzari bete beharreko adin eta sexu kuota egokitu zitzaizkion. Azterlan honetan lan egiteko erabilitako lagina azkenean 1.004 kasukoa izan zen, lortzea aurreikusten zena baino 4 gehiago.

3 erantzun modalitate egon ziren eta horien bitartez lagineko pertsona guztiak sailkatu ziren: egungo boluntarioak, galdutako boluntarioak (boluntario ohiak) eta izan daitezkeen boluntarioak (ez boluntarioak ez direnak ezta boluntario ohiak ere ez diren pertsonak, baina interesa dutenak). Guztira, aztertutako pertsonen gehiengoak ondorengo ezaugarri soziodemografikoak bete zituen:



INKESTATUTAKO PERTSONA GUZTIEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK				
GUZTIRA		EGUNGO BOL.	GALDUTAKO BOL.	IZAN DAIT. BOL.
Sexua	Gizona	58	100	326
	Emakumea	55	94	371
Adina	16-22 urte	8	15	47
	23-29 urte	14	17	64
	30-39 urte	21	36	128
	40-49 urte	16	42	124
	50-59 urte	18	33	111
	60 urte edo gehiago	36	51	223
Udalerraren tamaina	Handia	104	178	630
	Txikia	9	16	67
Eskualdea	Bilbo	35	48	230
	Ezkerraldea-Enkarterriak	22	47	192
	Nerbioi-Ibaizabal	27	42	108
	Busturia-Urbe	29	57	167
Ikasketak	Bat ere ez	3	8	73
	Oinarrizkoak	31	47	229
	Profesionalak	24	37	124
	Bigarren Hezkuntza	17	24	108
	Ertainak edo goi mailakoak	13	28	74
	Goi mailakoak	23	48	88
	Ed/Ede	2	2	1
Lana	Ikaslea	8	15	44
	Langabezian	5	11	55
	Etxeko lanak	18	29	135
	Besteren konturako soldatapekoa	50	89	264
	Norberaren konturako langilea	8	11	47
	Erretiroa hartutakoa, pentsioduna, ezgaituado/a	22	36	148
	Beste egoera batzuk	1	3	4
	Ed/Ede	1	0	0
Giz. lot. lana edo trebak.	Bai	30	42	70
	Ez	83	150	615
	Beste bat	0	0	1
	Ed/Ede	0	2	11
GUZTIRA		113	194	697

Telefono bidezko deiak goizeko 10etatik arratsaldeko 4etara egin ziren etengabe, astelehenetik ostiralera, 2008ko azaroaren 6tik abenduaren 4ra. Ikestagileen taldea zehazki azterlanerako trebatu zen. Telefono bidezko inkestaren iraupena batez beste 10 minutukoa izan zen.

Azterketaren fasean ez zen intereseko gertaerarik jazo eta lana behar bezala burutu zen. Betetako galdera sortak jaso ondoren, berrikusi egin ziren eta

erantzunak betetze eta sendotasun kontrolpean jarri ziren, balio ez zutenak alde batera utziz.

6. PROZESATZE INFORMATIKOA

Datuen prozesatzea SPSS-WIN fitxategian egin zen; programa horren bitartez egokiak ziren eragiketa estatistikoak egin ziren eta horietan oinarrিতා txosten hau lantzen hasi zen



II. eranskina

Taulak

I. KAPITULUA

1. TAULA. BIZKAIKO EGUNGO BOLUNTARIOEN PROFILA. MAIZTASUNA ETA % BERTIKALAK			
MENDEKO ALDAGAIK		MAIZTASUNA	%
Sexua	Gizona	58	51
	Emakumea	55	49
Adina	16-22 urte	8	7
	23-29 urte	14	12
	30-39 urte	21	19
	40-49 urte	16	14
	50-59 urte	18	16
	60 urte edo gehiago	36	32
Udalerriaren tamaina	Handia	104	92
	Txikia	9	8
Eskualdea	Bilbo	35	31
	Ezkerraldea-Enkarterriak	22	19
	Nerbioi-Ibaizabal	27	24
	Busturia-Urbe	29	26
Amaitutako ikasketak	Bat ere ez	3	3
	Oinarrizkoak	31	27
	Profesionalak	24	21
	Bigarren hezkuntza	17	15
	Ertainak edo goi mailakoak	13	12
	Goi mailakoak	23	20
	Ed/Ede	2	2
Lanbide nagusia	Ikaslea	8	7
	Langabezian	5	4
	Etxeko lanak	18	16
	Besteren konturako soldatapekoa	50	44
	Norberaren konturako langilea	8	7
	Erretiroa hartutakoa, pentsioduna, ezindua	22	20
	Beste egoera batzuk	1	1
	Ed/Ede	1	1
Trebakuntza lana giz. arl. loturikoa	Bai	30	26,5
	Ez	83	73,5
GUZTIRA		113	100


2. TAULA. GIZARTE PARTAIDETZAREKIN LOTURIKO ENTITATE EDO ERAKUNDEETAN PARTE HARTZEA. % HORIZONTALAK ETA BERTIKALAK

MENDEKO ALDAGAIK	GUZTIRA	% HORIZONTALAK		% BERTIKALAK	
		GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA
Alderdi politikoak	17	22	11	68	32
Sindikatuak, elkarte prof. eta enpresa elk.	20	24,5	5,5	87	13
Parrokia, erakunde erlijiosoa	37	24	51	33	67
Kirola, kult., Hezk., Aisial. Elk.	58	64	53	56	44
Elk. Solidarioa	41	36	45,5	46	54
Beste elkarte mota bat	28	31	25,5	56	44
Gizarte mugimenduak	19,5	24	14,5	64	36
Noizbait izan naiz	28	25,5	30	48	52
Ez naiz elkarte bateko kide	12	10	15	42	48
GUZTIRA	97	51	46	51	46

3. TAULA. BOLUNTARIOA KIDE DENEKO ERAKUNDE KOPURUA. % HORIZONTALAK

MENDEKO ALDAGAIK		0	1	2 EDO 3	4 EDO GEHIAGO	N
Sexua	Gizona	21	48	22	9	58
	Emakumea	25	33	33	9	55
Adina	16-22 urte	25	50	25	0	8
	23-29 urte	21	50	21	7	14
	30-39 urte	14	62	19	5	21
	40-49 urte	25	31	38	6	16
	50-59 urte	11	39	22	28	18
	60 urte edo gehiago	33	28	33	6	36
GUZTIRA	26	46	31	10	113	

4. TAULA. GIZARTE PARTAIDETZARAKO JARDUERAK. % HORIZONTALAK ETA BERTIKALAK

MENDEKO ALDAGAIK	GUZTIRA	% HORIZONTALAK		% BERTIKALAK	
		GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA
Partaidetza elkarteak, GKE, sindikatuak	73	81	64	57	43
Parte hartzea konts. sekt. edo koordinazio laneko beste org. kolektibo batzuetan	16	21	11	67	33
Kolaborazioa ekitaldi komunitarioetan	47	52	42	57	43
Sinatzeak, kanpainak, mezuak, iradokizunak	45	47	42	54	46
Manifestazioak, grebak, kontsultak	40	53	27	67	33
Ez onartutako protestako jarduerak	5	10,5	0	100	0
Produktuei boikot egitea	37	38	35	54	46
Politikariekin edo instituzioekin kontaktuan jartzea	28	40	15	74	26
Dirua ematea	71	79	64	56	44
Jantziak, elikagaiak, bestelako baliabideak dohaintzan ematea	81	76	87	48	52
Bilera edo topaketetara joatea	37	48	24	68	32
Etxean adin txikikoak hartzea	2	3,5	0	100	0
Turismo solidarioa, auzolandegiak, nazioarteko brigadak	5	3	7	33	67
N	113	58	55	58	55

5. TAULA. AZKEN 12 HILABETEETAN BOLUNTARIO GISA BORONDATEZKO LANA EGIN DUTEN PERTSONAK. EGUNGO BOLUNTARIOAK. % HORIZONTALAK				
MENDEKO ALDAGAIK		BAI	EZ	N
Sexua	Gizona	86	14	57
	Emakumea	87	13	55
Adina	16-22 urte	87,5	12,5	8
	23-29 urte	93	7	14
	30-39 urte	76	24	21
	40-49 urte	80	20	15
	50-59 urte	94	6	18
	60 urte edo gehiago	89	11	36
GUZTIRA		87	13	112

6. TAULA. BOLUNTARIO EGIN ZIRENEAN ZUTEN ADINA BATEZ BESTE. BATEZ BESTEKOAK ETA OHIKO DESBIDERAPENAK				
MENDEKO ALDAGAIK		N	BATEZ BESTEKOAK	DESBIDERAPENA
Sexua	Gizona	106	32,4	15,6
	Emakumea	56	28,9	13,7
Adina	16-22 urte	50	36,5	16,7
	23-29 urte	8	18,1	3,5
	30-39 urte	13	18,8	4,1
	40-49 urte	18	23,7	6,9
	50-59 urte	16	31,1	11,0
	60 urte edo gehiago	18	33,7	12,7
Udalerriaren tamaina	Handia	33	46,1	16,0
	Txikia	98	33,1	15,7
Eskualdea	Bilbo	8	24,5	12,5
	Ezkerraldea-Enkarterriak	35	35,9	16,2
	Nerbioi-Ibaizabal	20	26,5	11,1
	Busturia-Urbe	24	31,7	16,0
Amaitutako ikasketak	Bat ere ez	27	33,1	16,5
	Oinarrizkoak	3	35,7	17,2
	Profesionalak	28	38,9	16,8
	Bigarren hezkuntza	24	27,8	11,2
	Ertainak edo goi mailakoak	15	27,4	11,0
	Goi mailakoak	12	34,3	20,4
	Ed/Ede	22	31,7	16,9
Lanbide nagusia	Ikaslea	7	15,7	3,2
	Langabezian	5	17,4	2,6
	Etxeko lanak	18	42,8	15,3
	Besteren konturako soldatapekoa	47	28,1	12,1
	Norberaren konturako langilea	8	32,3	14,9
	Erretiroa hartutakoa, pentsioduna, ezindua	20	43,8	15,5
	Beste egoera batzuk	1	18,0	



7. TAULA. GAUR EGUN BOLUNTARIO IZATEKO ARRAZOIAK. FAKTOREEN GARRANTZIA. BATEZ BESTEKOAK

MENDEKO ALDAGAIK	GUZTIRA	OHIKO DESIDERAPENA	SEXUA		ADINA						UDALERRIAREN TAMAINA		ESKUALDEA			
			G	E	16-22 urte	23-29 urte	30-39 urte	40-49 urte	50-59 urte	60 urte edo gehiago	Handia	Txikia	Bilbo	Ezkerraldea-Enkarterriak	Nerbioi-Ibaizabal	Busturia-Urrib
Nire lanaren emaitzak ikustea	5,01	3,46	4,81	5,23	4,5	5,71	5,86	4,56	4,94	4,57	5,04	4,57	4,43	5,73	4,52	5,59
Besteei laguntzearen satisfazioa	7,99	1,93	7,52	8,52	8,12	8,36	7,38	8,19	8,41	7,88	7,98	8,14	8,43	8	7,46	7,9
Ekintzaren balio soziala	8,24	1,78	8,24	8,24	8,25	8,71	7,95	9,06	8,59	7,64	8,23	8,43	8,2	8,81	8,04	8,03
Profesionalki treb. lortzeko aukera izatea eta/edo esper. hartzea	4,61	3,48	4,54	4,69	6,75	5,62	3,86	4,4	5,44	3,78	4,8	2,25	5,34	5,32	4	3,76
Disfrutatzea, ondo pasatzea	6,78	3,22	6,64	6,93	8	8	6,67	5,75	6,11	6,92	6,89	5,44	7,12	6,91	7,3	5,79
Nire ingurua edo gizartea hobetzeko lana egitea	7,59	2,44	7,7	7,46	8,25	8,64	6,62	8	7,5	7,46	7,72	5,57	7,51	8,23	7,96	6,86
Erlijio arrazoiak	3,42	4,14	2,19	4,71	3,62	1,07	2,1	2,25	3,33	5,61	3,41	3,44	5,06	2,77	3,07	2,24
Politikarekiko interesa	2,41	3,36	2,86	1,93	5	4,5	1,57	1,56	2,11	2,03	2,48	1,56	2,37	2,18	2,89	2,17
Bakardadetik ihes egitea	3,56	3,69	3,05	4,09	5,25	2,64	3,14	3,12	2,89	4,31	3,67	2,22	4,09	3,95	4,22	2
Herritarrak sentsibilizatzea	6,79	2,97	6,93	6,63	7,62	8,21	5,9	7,69	5,88	6,59	6,85	5,86	6,26	7,95	7	6,38
